

Aurkibidea

Sarrera	3
Metodologia eta ikerketa-teknikak	5
1. Helburuak.....	5
1.1. Helburu orokorra	5
1.2. Helburu zehatzak	5
2. Ikerketa-teknikak.....	5
3. Lagina	6
4. Datuen analisia	8
Emakumeak euren jatorrizko herrialdeetan: errealitateak eta emigratzeko arrazoiak.....	9
Emakume etorkinen familia-egoera	155
1. Bakarrik ala lagunduta?	155
2. Familia jatorrizko herrialdean eta berriz ere elkartzea: espektatibak, zailtasunak eta ondorioak	17
Emakume etorkinen egoera juridikoa: paperik gabe egoteak dakartzan mugak eta erregularizazioaren odisea	23
1. “Paperak lortzea”: lehentasunezko helburua	23
2. Paperik ez lortzeak eragiten dituen mugak	244
3. Errolda berme bakar gisa	26
4. Erregularizazioa lortzeko estrategiak: lan-eskaintzak, familia berriz elkartzea eta, neurri txikiagoan, ezkontzak	26
5. Maila juridikoa eta emakume etorkinen eskubideak	30
Etxebizitzaren arazoa: zailtasunak eta estrategiak	35
1. Etxebizitza eskuratzeko zailtasunak	35
2. Ondorioak eta eragozpenak	37
Emakumeak eta langileak: okupazio-sektoreak. Elementu erabakiorrak eta ondorioak.....	42
1. Traba instituzionalak lan-aukeren aurrean: lan-espazioak sortzea eta gizarte-ahulezia	42
2. Harreraren testuingurua eta profesionalki behera egitea.....	46
3. Lana topatzeko bideak	49
4. Etxe-zerbitzua, interna gisa lan egiten duten langileak, interna ez direnak eta enplegu-aniztasun ezegonkorra	51
5. Lana, bizitza pertsonala eta bizitza familiarra uztartzeko zailtasunak.....	53

Helduen formazioa, eskola eta hizkuntzak: prestakuntzaren hiru oinarriak	56
1. Emakume helduen formazioa edo prestakuntza.....	56
2. Seme-alabak eskolatzea	58
3. Bertako hizkuntzak ikastea: gaztelania eta euskara	60
Desberdintasun kulturalen inguruko pertzepzioa.....	66
1. Egokitzea prozesu pertsonal gisa	66
2. Ikuskera kulturek guztia hartzen dute: egunerokotasunetik hasi eta sakoneneraino.....	68
3. Identitate berria gatazka-iturri gisa	70
4. Alderdi negatiboak	723
Emakume etorkinen eta biztanle autoktonoen arteko bizikidetza	75
1. Biztanleria autoktonoaren jarrerak.....	75
2. Sozialki posizionatzeko zailtasunez	77
3. Gizarte-espazioak, interakziorako espazio gisa	78
4. Emakume etorkinen eta biztanle autoktonoen arteko sareak	79
5. Emakume etorkinen iritziak etorkinen komunitateen inguruan.....	80
Emakume etorkinen egoera psikosiziala: nostalgiak, minak, beldurrak eta horiei aurre egiteko estrategiak.....	84
1. Dolu migratorioa eta familia jatorrizko herrialdean.....	84
2. Akulturazioa eta kaltegarriak diren ohiturak hartzeko beldurra	86
3. Gizarte-baldintzen gogortasuna: ongizatearentzako kaltegarria den faktorea	86
4. Eusten dioten emakumeak: aurrera egiteko estrategiak.....	89
Ondorio orokorrak.....	92
Ekintzarako proposamenak	97

Sarrera

Txosten honek **Gipuzkoako SOS Arrazakeria – SOS Racismo** erakundeko ikerketa-taldeak **Erreterian bizi diren emakume etorkinen egoeraren inguruan** sakontzeko egindako lana jasotzen du. ONG honek bere garaietan Erreteriarako Udaleko Gizarte Ongizate Sailak egindako deialdiari erantzun zion, Erreterian bizi diren emakume etorkinen egoera modu praktikoan ikustarazten eta aldatzen lagunduko duen ikerketa-ekintza proposatuz.

Tradizionalki migrazioak maskulinoak izan dira eta kalean, emigratu gehiago, gizonezkoek ala emakumezkoek emigratzen duten galdetuz gero, galdetutako gehienek emigratzen dutenak, batez ere, gizonezkoak direla erantzungo ligukete (Pérez, 2005¹). Gaur egun baina, Gipuzkoako SOS Arrazakeria – SOS Racismoren iritziz, emigratio-fluxuen feminizazioa gertatzen ari da, eta gero eta gehiago dira, bateko eta besteko emakumeekin partekatzen ditugun bideak eta espazioak.

Errealitate hau baina, ahaztuta geratzen da maiz eta inmigratioaz oso irudi maskulinizatua ematen da: ez dira ez argitaratzen, ezta dibulгатzen ere, emakumeek egindakoak eta emakumeen ikuspegi berezituak. Carmen Gregorio Gil² antropologoaren hitzetan, emakumeak ez dira ahaztuak izan gizonak baino gutxiago izan diren kasuetan soilik. Zenbait autoreren hitzetan, emakumeen presentzia gizonena baino handiagoa izan den zenbait mugimendu migratoriotan, kuantitatiboki gizonak baino gehiago izan arren, kasu horietan ere, emakumeen errealitatea ezkutatu egin da edo ez zaio behintzat, argitara ematen lagundu. Horren azpian ideologia garbi bat ageri da esparru pribatua edo etxekoa ez den gainerako espazioetan emakumeen protagonismoa ukatzen duena.

Beraz, emakumei buruzko datuak eta informazioak salbuespenak izan ohi dira. Normalean, gizonei lotuta ageri ohi dira, euren autonomia baztertuz eta euren beharrak, zailtasunak edo/eta indarguneak ahaztuz. Bazterketa horren guztiaren adierazle garbia da, adibidez, honako hau: gizarte-irudiak sortzen dituzten diskurtsoen sorreran iturri gisa sufritzen duten bazterketaren ondorioz euren parte-hartzea ahula da gizarte-arloan, kulturaren, ekonomian eta politikan.

Testuinguru honetan, **Gipuzkoako SOS Arrazakeria – SOS Racismo** erakundearen ezinbestekoa iruditzen zaigu **emakume etorkinen tratamendu soziala kuantitatiboki zein kualitatiboki berbideratzen laguntzea**. Txosten honen asmoa da beraz, emakume horien

¹ Clara Pérez Wolfram (2005). *Latinoamericanas en Donostia. Proyectos migratorios, obstáculos y estrategias*, GAKOA-Hirugarren Prentsa, Donostia

² Carmen Gregorio (1997b). *Sistemas de género y migración internacional: la emigración dominicana en la Comunidad de Madrid*, Madrilgo Unibertsitate Autonomoa (argitaratu gabeko doktore-tesia).

ahotsak berreskuratzea, euren errealitatea ezagutzea eta horrela, bizi dituzten baldintzak hobetzeko helburuarekin, eragindako erakundeek euren politikak, planak eta programak egokitu ditzaten sustatzea.

Lan hau egiten Gipuzkoako SOS Arrazakeria-SOS Racismo erakundeko **ikerketa-taldeko** kide diren honako lagun hauek aritu dira: Larraitz Zumeta, Adriana Villalón, Ainara Arnoso, Silvana Luciani, Aizpea Otaegi eta Peio M. Aierbe.

Laguntzaile-lanetan berriz, honako kide hauek ibili dira: Amaia Urkiza, Isabel Rivas, Maite Artola, Idoia Fernandez, Joseba Roldan, Anaitze Agirre eta Ane Pedrosa.

Metodologia eta ikerketa-teknikak

1. Helburuak

1.1. Helburu orokorra

Errenterian bizi diren eta jatorriz Europako Batasuna osatzen duten herrialdeetakoak ez diren emakume etorkinak ikustaraztea

1.2. Helburu zehatzak

- Euren **profilak eta ezaugarri soziokulturalak zehaztea**
- Euren **iritzi eta pertzepzioak ezagutzea**
- Gizarte-eragileak **arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako borrokan murgilaraztea**
- Iritzi publikoa oro har, eta zehazki, Errenteriako biztanleak emakume etorkinek bizi duten **egoeraz eta bazterketaren arrazoiez jabearaztea**
- Emakume etorkinek bizi dituzten bazterketa- eta **diskriminazio-egoerak egon daitezen sustatzen duten faktoreetan eragitea**

2. Ikerketa-teknikak

Ikerketa hau egiteko erabili ditugun ikerketa-teknikak gizarte-ikerketa kualitatiboaren metodologian duten oinarria. Azterketa dokumentala egin da eta bigarren mailako iturriak ere kontsultatu dira. Baina, ikerketaren xedean sakontzeko aukera egokiena delakoan, **elkarrizketa sakon erdiegituratuak** izan dira ikerketaren funtsa. Elkarrizketak egiteko gidoia ikerketa-taldeak berak diseinatutakoa izan da eta emakume etorkinekin kontrastatutakoa, ikerketaren hasera-haseratik, euren ikuspegia txertatzeko helburuarekin.

Bestalde, eta ikerketan eta emakume etorkinen iritzi eta pertzepzioetan sakontzeko helburuarekin **hiru eztabaida-talde egin dira emakume etorkinekin** beraiekin. **Laugarren eztabaida-talde bat ere osatu eta egin da udalerriko gizarte-eragile nagusiekin, esparru instituzionaleko kideekin eta Errenterian etorkinak laguntzen dituzten elkarteetako ordezkariekin.**

3. Lagina

Egindako elkarrizketetan Erreterian biztanleria gehien duten eta Europako Batasunekoak ez diren herrialdeetako ordezkariak hautatu ditugu eta, **jatorriaren arabera ordezkagarritasunaren jarraiki, elkarrizketa-kopurua finkatu dugu**. Herrialde hauek bost komunitatetan bildu ditugu:

- Latinoamerikarra
- Magrebiarra
- Sahara azpikoa
- Asiarra
- Europar Batasunean ez dauden herrialdeek osatutako Europakoa

Gainera, emakume etorkinekin lan egiten duten eta giltzarri diren esparru instituzionaleko zein asoziatiboko hainbat gizarte-eragileren esperientziak jaso ditugu.

Lagina diseinatzeko eta behar zen laginaren inguruko erabakia hartzeko, laginketa estratifikoa egin dugu. Profil soziokulturala, adina eta egoera juridiko-administratiboa estratifikaziorako aldagai gisa hartuta egin dugu elkarrizketen banaketa. Horretarako, erroldako datuak erabili ditugu. Hala ere, eta erroldatuta ez dauden emakume etorkinen ahotsak ere jasotzeko asmoarekin, elur-bola sistemara jo dugu. Prozedura honen bidez, ohiko bideak erabiliz lokalizatu ezin diren biztanleengana ailegatu ahal izan dugu.

Guztira, beraz, ikerketarako 35 emakumeren datuak eta informazioak erabili ahal izan ditugu. Horietatik, **22 emakumeri elkarrizketa sakonak** egin dizkiegu. Hurrengo orrialdeko grafikoan (1. grafikoan) ageri den bezala, 22 emakume horiek honako modu honetan banatuta zeuden, lehenago aipatutako jatorriaren arabera banaketa horretan:


- % 27 izan dira jatorriz latinoamerikarrak (2 Nikaraguakoak, 2 Brasildarrak, 1 Kolombiarra eta beste 1 Ekuadorrekoa).
- % 23 izan dira jatorriz Magrebekoak (5 emakume Marokoar).
- % 18 izan dira Batasunetik kanporako Europakoak (2 Bulgariakoak, 1 Errumaniakoa eta beste 1 Ukraniarra).
- % 18 izan dira Sahara azpiko Afrikarrak (4 Ekuatore Gineakoak)
- % 14 asiarrak (1 Txinakoa eta 2 Mongoliakoak)

Eztabaida-taldeetan berriz, 13 emakumek parte hartu dute, jatorriaren arabera honako modu honetan banatuta:


- Horietatik 6 izan dira jatorriz Latinoamerikarrak (2 Boliviakoak, 1 Ekuadorrekoa, 1 Dominikar Errepublikakoa, 1 Argentinakoa eta 1 Brasilgoa).
- 4 Batasunaz kanpoko Europakoa (2 Errumaniakoak eta 2 Ukraniakoak),
- 1 Magrebekoa (Marokokoa).
- Eta, 1 Sahara azpiko Afrikakoa (Ekuatore Gineakoa).

Eztabaida-taldeetan parte hartu duten emakumeen jatorrizko herrialdearen arabera banaketa, 2. grafikoan ageri da irudikatuta. Azpimarragarria da Asiako emakumeen presentziarik eza.

1. **Grafikoa:** Elkarrizketatutako emakumeen banaketa, jatorrizko herrialde-multzoaren arabera



2. **Grafikoa:** Eztabaida-taldeetan parte hartu duten emakumeen banaketa, jatorrizko herrialde-multzoaren arabera



Gizarte-eragileei dagokienez, badira hainbat eragile eztabaida-taldean parte hartu zutenak, batzuk esparru instituzionalekoak eta beste batzuk asoziatibokoak. Baina horiez gain, badira lan honetan lagundu duten beste erakunde batzuk ere, euren gaiaren inguruko pertzepzioa adierazi digutenak. Guztira, honako esparru edo/eta erakundeetako ordezkariekin izan ditugu harremanak:

- **GKEak eta etorkinak laguntzen dituzten erakundeak:**

- Gipuzkoako SOS Arrazakeria - SOS Racismo
- Mikelazulo Kultur Elkartea

- **Elkarateak:**

- Aukera
- Errenteriako Emakumeen Aisialdi Taldeak
- Amalatz
- Garaipen

- **Udal Zerbitzuak eta Programak:**

- Gizarte Ongizate Saileko teknikariak
- Gizarte Ongizateko Programa
- Kale-hezitzaileen Programa
- Udaltzaingoa
- Kultur Programa

- **Udalarenak ez diren zerbitzu instituzionalak:**

- EPA
- Oarsoaldea s.a., garapen-ajentzia

- **Esparru erlijiosoa:**

- Cáritas
- Iztieta Mezkita
- Kaputxinotako Eliza
- Eliza Ebangelikoa

4. Datuen analisisia

Bildutako informazioa aztertzeko, ikerketa-taldeko kide guztien artean eraiki eta adostutako kategoria-sistema bat baliatu dugu. Horretarako, lan honetan aritu den ikerketa-taldean hainbat esparrutako espezialistak izan ditugu: etorkinek komunikabideetan duten tratamenduan adituak, kultur-arte bitartekaritzan, giza-baliabideetan, taldeen dinamizazioan eta eskuhartze psikosozial eta komunitarioan.

Emakumeak euren jatorrizko herrialdeetan: errealitateak eta emigratzeko arrazoiak

Atal honetan jaso ditugu elkarrizketatutako emakumeek euren jatorrizko herrialdeetan bizi zuten egoera, euren errealitatea eta emigratzeko erabakia hartzeko izan dituzten motibazio nagusiak.

Batzuk uste dute jendea merkatuaren eskaintzak eta eskariak eraginda baino ez dela mugitzen. Alabaina, historiako eta gaur egungo **mugimendu migratorio asko eta askoren oinarrian harreman-sareak daude**. Iza ere, inmigrazioa, sarri asko, prozesu soziala da, eta prozesu soziala den neurrian, ez dio emigratzen duen emakumeari bakarrik eragiten, baizik eta baita bere familiari, lagunei eta aurretik egindako harreman-sareei ere.

Bestalde, **etorkinak ailegatzaren diren testuingurua osatzen duten aldagaiek** ere pisu handia dute, adibidez, 80-90. hamarkadetan Espainian zein Euskal Herrian gertatu diren aldaketak. Europa erdialdeko herrialdeetara ailegatu nahi zutenen pasaleku izatetik, etorkinen hartzaile izatera pasa gara arrazoi desberdinak direla medio: ohiko etorkin hartzaile izan diren herrialdeetan mugak itxi dira, gure inguruneak garapen ekonomiko handia izan du eta gainera, hor daude ere, lotura historiko eta ekonomiko garrantzitsuak. Bai Mediterraneoaren bi aldeetan bizi direnen arteko harremanak eta baita Espainia eta bere kolonia izandakoen artekoak ere Espainia eraman du etorkinen jomuga izatera (Espainiako kolonia izandako herrialdeetan, adibidez, EEBBen alternatiba izatera pasa da).

Errealitate eta prozesu horiek aztertzeko garaian zera aipatu beharra dago: eremu migratzaileak antolatzen dituztenak gizarte-harremanen multzoak dira eta beraz, genero-harremanez hitz egitea, emakumeen eta gizonen arteko harremanez hitz egitea da, modu berezitan ulertutako proiektu pertsonal eta familiarrei buruz. Ikerketa asko dira salatu dutenak nola maiz prozesu migratorioetan **emakumeek izan duten rol aktiboa alde batera utzi den**. Modu sistematikoan, emakume etorkina, beste norbaiten lagun gisa tratatu izan da, elkarrekin egindako egitasmo migratorioan emakumeak izan duen eragina edo bere autonomia gutxietsi dira. Gizonei eman zaie protagonismoa, langile edo familia-sostengatzaile gisa izan duten paperari. Oro har, abiapuntua honako hau da: “emakumea” kategoria homogeen gisa. Horrela, emakume kategoria horren errepresentazio hedatuenetariko batean sakontzen da: bere “pasibitatea”. Oso bestelakoak dira ikerketa honetan jaso ditugun testigantzak: **pasibatetik**

oso urrun dagoen emakume-profilarekin egin dugu topo. Horren erakusgarri dira emigratu izana bera, erabaki hori hartu eta aurrera eramán izana, eta ez direla nahastu behar jomuga den herrialdean sartzeko modua eta egitasmo migratorioa.

Emigratzeko arrazoiak ugariak eta konplexuak dira. Batetik, testuinguruaren aldagaiak daude: herrialdearen egoera ekonomikoa, krisi finantziario eta politikoak, merkatu globalen artikulazio desberdina, erosketa-gaitasunaren galera, etab. Bestetik, berriz, genero-harremanak egituratzen diren modua dago, emakume eta gizonen erreferente migratorioak, emakumeek eraikitako sare sozioekonomikoak eta emakumeek duten protagonismoa familia-ekonomian.

Emigratu aurreko lan-egoera eta bizi-egoera ugari horietan, emakume etorkinei egindako elkarrizketatan **badira gai nagusi batzuk:** lehenago egiten zituzten lanak, jomuga zuten herrialdearekin zituzten loturak, egoera familiarra, aukera pertsonalak, gaisotasunak, krisi ekonomikoak, bortxazko testuinguruak, mundu-mailako lan-merkatuko eskaintzak eta eskaerak.

Horrela, elkarrizketatuen artean gehienak, seme-alabak eukitzeaz gainera (batzuk jatorrizko herrialdeetan, beste batzuk hona ekarri dituzte eta badira, seme-alabak hemen eduki dituztenak ere), emigratu aurretik, euren jatorrizko herrialdeetan, enplegu bat zuten. Badira irakasleak, lantegietako langileak, arropa-dendetako enkargatuak, etab. Badira ere, unibertsitateko ikasleak.

“Trabajaba de profesora, de profesora en guardería”

(Lin, Txina, 35 urte)

“Trabajaba en una fábrica, de cosido (costura) y estudiaba”

(Mugi, Mongolia, 36 urte)

“Yo tenía una tienda, de ropa, yo tenía una tienda de ropa, era la encargada de la tienda”

(Anna, Bulgaria, 26 urte)

Kasu batzuetan ere, ordaindutako lanaz gainera, **bestelako inplikazio militatea** ere bazuten, adibidez, tratu txarrak jasotzen dituzten emakumeen elkarte batean.

“Trabajaba en una asociación de mujeres. Esta asociación, bueno, trabajaba con mujeres maltratadas, había asesoría legal, médica, psicológica y derecho, género. Entonces hacían talleres, se impartían talleres de género y había asesoría legal para cuando...violaciones y esas cosas, maltrato psicológico o físico había asesoría legal y asesoría médica. Tenían una consulta médica que era un poquito a bajo costo y buena”

(Melissa, Nikaragua, 25 urte)

Sarri asko gertatzen da jatorrizko herrialdeak bizi duen krisiaren ondorioz, bat-batean emakumearen egoera familiarra estutu egiten dela: **familia-burua bera lanik gabe geratzen da,** familia aurrera ateratzeko hainbat lan egiten ditu, baina, azkenean, egoera estu horrek bultzatuta hartzen du emigratzeko erabakia.

“Tengo tres hermanos pequeños, mi mamá y yo. Mi mamá es maestra y los salarios de los maestros... allí son demasiado bajos. Y, ella, hace dos años se quedó sin trabajo y nos quedamos con menos. Entonces pasamos a una situación, algo floja, por decirlo así, esa es la palabra. Entonces yo, bueno, empecé a buscar trabajo. El último trabajo que tuve

era el de asesora de créditos en una financiera, allí en Nicaragua, los últimos seis meses, pero, anteriormente había trabajado, bueno, en una Universidad. Que en ese momento que trabajé en la Universidad, era secretaria y a la vez era cajera. Cajera los fines de semana y en la semana era secretaria, por un tiempo"

(Melissa, Nikaragua, 25 urte)

Beste egoera batzuetan pobrezia eta bortxakeria azpimarratzen diren jatorrizko herrialdean emigratzeko arrazoi nagusi gisa.

"Bueno, trabajaba en un restaurante y mi marido trabajaba en, allá le dicen alcaldía y aquí, ayuntamiento. Y, pues, vivíamos muy a ras con todo, pobremente vivíamos, porque el sueldo que yo ganaba, nos metimos en una casita nuestra para irla pagando y a él se le demoraban 2 o 3 meses para pagarle, entonces, mantenía a mi abuela y lo que ganaba yo era para la casa. Y entonces, nos fuimos demorando con los pagos de la casa meses y meses y entonces ya nos la iban a quitar porque no teníamos cómo y como él mantenía de huelga en huelga."

(Luz, Kolonbia, 41 urte)

"Mal, mal. Siempre que llamo a mi madre es todo mal, todo pobrezas, penas y violencia. Y violencia. Sobre todo en mi ciudad, hay muchas muertes cada día"

(Luz, Kolonbia, 41 urte)

Aurretik dituzten harreman-sareak izaten dira beste batzuetan emigratzeko erabakia hartzen laguntzen dutenak. Jakina denez, mugimendu migratorioen motore garrantzitsua harreman-sareak dira eta beraz, sare horiek sortzen dituen estimulu nagusia desagertzen denean ere (lan-eskaera handia), sareak bere kabuz lanean jarraitzen du. Horregatik izaten da hain ohikoa, jende etorkina zonalde geografiko jakinetan biltzea, auzo, herri, hiri edo herrialde jakinetan. Beraz, ahuldutako egoera sozioekonomikoari gehitu zaio jomuga den herrialdean kontakturen bat, izan ere, emakume etorkin ia guztiek, bazuten hemen harremanen bat: dagoeneko hemen finkatutako lehengusua, izeba, koinata, senarra, mutil-lagun euskalduna... senitartekoren bat.

"Tengo mis tías aquí y en Francia, siempre me han dicho ven, ven para trabajar aquí ¿no?"

(Salma, Maroko)

"Entonces ya una cuñada mía que estaba aquí, dos, tres, estaban tres aquí. Entonces, pues le traté al marido a ver si, para venirme para acá. Entonces que dijo que sí, que haber porque no iba a estar él nada bien. Y las verdad que hablé con mi cuñada y me dijo que sí, pero me prometió cosas muy bonitas allá, cosas que viene una acá y ves otras cosas que no..."

(Luz, Kolonbia, 41 urte)

Euskal Herrira edo Espainiara iristea lotuta dago batzuetan ordura arte tradizionalak izan diren beste aukera batzuen amaierarekin: herrialde hegoamerikarrentzako, batez ere, Kolonbia, Ekuador eta Ertamerikako herrialdeentzat, **EEBbera joateko aukera mugatzea**. Testuinguru horretan iristen da Espainiara joateko aukera, ideia zabaltzen da, turista gisa joateko aukera, emakumeentzako lana dagoela... Eta hau horrela da, Europako emakumeen testuingurua ere aldatu denean: emakume euskaldunak lan-merkatuan sartu dira, Gizarge Ongizateak bere mozketak izan ditu, etxeko lanak ez dira emakume eta gizonen artean modu berean

partekatzen, eta beraz, euren etxean emakume langileek egiten ez duten lana, emakume etorkinak egingo du.

“Entonces, sucedió otra, de que había otra posibilidad de viajar para el Estado, con papeles, un señor estaba contratando y llevaba a la gente [...] Se puso como de moda el decir venir a España, como a Europa entramos nosotros sin visa, por tres meses estamos como turistas entonces, todo el mundo, para España, para España. Más o menos así nace la idea después de ver la posibilidad de viajar a Estados Unidos hemos hecho venirme para acá. Dicen que hay trabajo, empecé a buscar, a preguntar, a indagar con gente que tiene, que tenía gente aquí, cómo era la situación y me empezaron a contar un poco de que para las mujeres había trabajo y para los hombres no había o que si para los hombres había pero era con papeles, un montón de cosas que quise sobre el trabajo.”

(Melissa, Nikaragua, 25 urte)

Emakumeak nagusi diren zainketen eremuan, **emakume etorkinen artean oso ohikoa da jatorrizko herrialdeetan dauden senitartekoeekin lotura mantentzea**, batez ere, bertan seme-alabak utzi dituztenean, normalean, amaren aldeko amonarekin. Hemen umeak zaintzen dituen emakume horrek, beste norbaiten zaintzapean utzi ditu bereak.

“He venido de Mongolia...tengo una hija está en Mongolia, con mi madre y con mi hermana. Antes casada, ahora no”.

(Mugi, Mongolia, 36 urte)

Arrazoen batez bestekotik kanpo, badira **emigratzeko bestelako arrazoiak** ere. Gaisotasuna tarteko denean, Ekuatore Ginearekin dauden hitzarmenek, hona tratamendua jasotzera etortzeko aukerak eskaintzen dituzte. Horretarako, behar diren tramite guztiak egin beharko dira noski.

“Lo pasé muy mal. Yo soy de las que vinieron aquí, no realmente para venir a buscar trabajo como vienen muchos, yo vine porque estaba enferma. Y quise curarme y por eso vine aquí. El problema mío fue que quería tratarme con los médicos, me pedían hacer las cosas, que tenía que buscar papeles, vas donde los papeles y también me ponían trabas, me ponían dificultad. Entonces yo para mí lo he pasado muy mal. No era una situación que yo buscaba, trabajo, que yo lo pasaba mal. En mi tierra, no puedo mentir, que mi caso no es ese. Mi caso es que yo necesitaba papeles para poder curarme.”

(Victoria, Ekuatore Ginea, 38 urte)

Beste batzuetan, jatorrizko herrialdeetan sortu edo jasan diren arazoak baino, motore migratzaileak beste batzuk dira; kuriositatea, unibertitate-mailako ikasketak edo hemen bikotekidea izatea.

“Sí, lo que pasa es que también había una inquietud. Yo quería venir al viejo mundo. Quería conocer. Hubo una época...Entonces bueno, en esta época pues me acuerdo que estaba yo aleccionando, fui profesora de la universidad, y pues surgió una oportunidad de venir a estudiar a Madrid y básicamente fui a Madrid. Pues, tuve oportunidad de desarrollarme también a nivel intelectual bastante, pues... Y si que he echado mucho de menos a mi país. Sí y en verdad a las personas que he dejado allí, ¿no?”

(Helena, Brasil, 45 urte)

Hona iritsitakoan, harreman-sareen bidez osatu den aurre-irudia zapuztu egiten da. Egoera soziolaboral gogor eta zailarekin egiten dute topo. Eta, bueltan etxera itzultzeko gogoia handia

izan daitekeen arren, hona etortzeko hartu den zorrak edota betebeharrak ez dute erabaki hori posible egiten.

“Ya, yo, cuando vine, pues como me ofrecieron esas cosas así tan bonitas y me las pintaron. Ya, pues, que se consigue fácil trabajo y dinero, que se consigue muy bien y no se qué. Dije yo, pues me cojo un piso y no se qué. Te haces todas las películas. Pero, cuando vine para acá y te encuentras todas esas cosas y piedras en el camino y..., o sea, en el momento te dan ganas de irte. A mi me dan ganas de irme, lo que pasa es que, pensaba en el dinero de mi suegro, y dije, si vuelvo allá otra vez con las manos vacías. Sin piso, o sea, empezar otra vez. Yo no. Me voy a quedar aquí y voy a luchar. Pues ahora, la verdad es que, los siete años se me han pasado, ni los he sentido, la verdad”

(Luz, Kolonbia, 41 urte)

Edo aurreirudi hori ez da sekula ere egiaztatzerara iristen, Afrikako herrialdeetan bisatuak lortzeko jartzen dituzten zailtasunak tarteko, batzuk saiatu arren, ez baitira emigratzerara iristen.

“Les veo que se mueren en el agua, ahogándose. Y ver que llega aquí e igual no va a tener ni trabajo, no tendrá la vida, nosotros los africanos todavía estamos un poco cerrados, pensamos que al llegar a Europa ya vamos a tener todo y es un engaño muy grande que yo no se que hacer para decirles que la vida cuesta como allí como aquí. ¿me entiendes?”

(Victoria, Ekuatore Ginea, 38 urte)

Azken batean, prozesu migratorioak aztertu eta ulertzeko garaian faktore asko hartu behar dira kontuan. Batzuk jatorrizko herrialdeetako egoera laboral, familiar eta sozioekonomikoekin dute zerikusia, beste batzuk berriz, Europan gertatzen ari diren aldaketekin.

Emakumeak euren jatorrizko herrialdeetan: ondorio nagusiak

- Prozesu migratorioak aztertu eta analizatzeko garaian emigratu aurreko emakumeen egoera laborala, familiarra eta sozioekonomikoa hartu behar dira kontuan batetik, eta bestetik, Europan gertatzen ari diren aldaketak. Beraz, prozesu migratorioetan eragiten duten faktoreak asko dira.
- Genero-harremanez hitz egitea, modu diferentean ulertzen diren emakumeen eta gizonen arteko harremanez, familia-proiektuez eta proiektu pertsonalez hitz egitea da.
- Historikoki inmigrazioaz eraiki den irudia maskulinoa izan da. Emakumearen inguruko irudi homogeneoa landu da, eta eragile pasibo gisa irudikatua izan da, emigratio maskulinoaren laguntzaile gisa.
- Elkarrizketatutako emakume etorkinen artean honako profil hau topatu dugu: emakue langilea, karga familiarra dituena eta egitasmo migratorioari bakarrik heltzen diona.
- Emigratzeko arrazoietan prozesu migratorioan eragiten duten egoera diferenteak topatu ditugu: famili-egoera konplexuak, krisi ekonomikoak, jomuga diren herrialdeetan eraldaketa sozioekonomikoak, etab.

Emakume etorkinen familia-egoera

1. Bakarrik ala lagunduta?

Gaur egun gure artean ditugun emakume etorkinen abiapuntuko familia-egoerak edota emigratu arrekook, ez dira beti bat etortzen hemengo imaginarioarekin. Elkarrizketatako emakumeen artean asko dira hemen familia dutenak: bikotekideak eta seme-alabek osatutako familiak edota seme-alabek bakarrik osatutakoak. Beste asko berriz, bakarrik daude eta ez dute hemen karga familiarrik. **Nahiko ohikoa da beraz, bakarrik emigratutako emakumeen eredia.** Kasu hauetan, izan liteke emigratzea denbora jakin baterako ikuspegiarekin egin izana, behin auresikusitako dirua bildutakoan etxera itzultzeko asmoarekin. Familia duten emakumeen kasuan ere, ohikoa da, beraiek egitasmo migratorioan aurreratzea, gutxieneko baldintza batzuk lortutakoan bere senitartekoekin hemen elkartzeko asmoarekin.

“Trabajaba de maestra en un colegio privado y no me alcanzaba mucho, ¡je! Pues los sueldos bajísimos y como tenía parientes en Italia, una de ellas vino a pasar vacaciones y luego cuando se volvía me dijo a ver si quería venir a Italia, a Génova. Y le dije que sí porque trabajando y estudiando no creo que hubiese alcanzado mis objetivos. En Italia estuve cerca de los 4 años. Con esa parienta mía y luego ya en Italia me hice mi vida”
(Vanessa, Ekuador, 34 urte)

“Vine sola en avión, con visado y todo. De Guinea luego empezaron a venir pateras, pero para venir así mi país está demasiado lejos... Cuando llegué tenía 22 años, en 2000. Tengo una tía aquí, que cuando vino yo aún no había nacido y tenía su número que me había dado un familiar. Y la llamé y le dije si me podía acoger en su casa los primeros días”
(Rosa, Ekuatore Ginea, 29 urte)

“Para pedir familia...pido mi marido. No, no, sola, antes sola. Ahora ya pedí hijo e hija”
(Lin, Txina, 35 urte)

Jatorria erabakigarria ez den arren, esan liteke, beste herrialdeetako emakumeekin alderatuta, **gutxi direla bakarrik etortzen diren Magrebeko emakumeak**, kasuak egon, badiren arren.

“Yo me casé con mi marido con 16 años, él tiene mucho tiempo, tiene muchos años aquí, él está aquí desde el año 72. Cuando hemos casado me trajo, ¿cómo se llama?, con una visa o pase o..., yo he venido con él aquí”
(Farah, Maroko, 35 urte)

Modu berean, nahiko ohikoa izaten da **Europar Batasunetik kanpora dauden Europako herrialdeetatik datozen emakumeen kasuan, behin gizonezkoa etorri eta hemen bizimodua egin duenean emigratzea.**

“Porque muchos de nuestros chicos han venido para aquí a buscarse la vida y luego han traído a su familia o todavía están solos aquí y su familia esta allá”

(Ludmila, Ukraina, 46 urte)

“Bueno, bien, estaba trabajando, vine, estuve con guarderías, no cuando estaba separado de mi marido. Por eso he venido aquí a vivir juntos y buscamos mejor vida”

(Olga, Bulgaria, 32 urte)

Bakarrik etorritako emakumeen artean, seme-alabak eduki arren, asko dira bikotekiderik ez dutenak, hau da, ama ezkongabeak dira, banadutakoak edo alargunak, eta beraz, familia-buruak. Modu batera edo bestera izan, kasu askotan egitasmo migratorioaren pisua emakumeak hartzen du: bera da datorrena, familia sostengatuko duena eta denborarekin senitartekoak hona ekartzeko ardura duena (seme-alabak, senarra, anai-arrebak, gurasoak edota bestelako senitartekoak izan).

“Tengo 26 años, soy soltera, con una hija, que va a hacer 7 años el 14 de abril, se llama Carmen y vive en Guinea con mi madre. Aquí llevo 3 años, casi desde cuando vine, me llegué aquí, llevo ya 3 años. Verdaderamente mis motivos fue por mi salud, porque estaba mal de salud, pues me llegué aquí y los médicos me alargaron el tratamiento y el proceso y tuve que quedarme y luego a aprovechar y a estudiar un poco y a trabajar”

(Teresa, Ekuatore Ginea, 26 urte)

“Aquí en... aquí, a no, no. Sólo amigas, familiares no, toda mi familia está en mi país. Son latinoamericanas, acá casi todas son nicaragüenses. Tengo una amiga colombiana también”

(Carmen, Nikaragua, 38 urte)

Bakarrik emigratzea, gogorra izan arren, euren herrialdeetan bakarrik egotea baina erosoagoa dela irizten diote emakumeek: askeago sentitzen dira eta baloratuagoak, euren buruen jabeago.

“Desde que llegué he crecido mucho, me he revalorado y me siento fuerte y bien conmigo misma. Soy más independiente. Ahora estoy muy contenta”

(Luz, Kolonbia, 41 urte)

Edonola ere, eta emigratzeko egitasmoari bakarrik heldu arren, **jomuga den tokian familia edukitzea**, elementu euskarri garrantzitsuenetariko bat da. Azken urteotan, datozen ia etorkin guztiak norbaiten bidez datoz, erreferentziaren bat dute, maiz familiarra izan ohi dena. Horrek zera esan nahi du: harrera-toki bat izatea, oinarrizko beharrak aseta edukitzea, oinarrizko informazioa eskuratzea eta gainera, horrelako egoeran hain beharrezkoa den familiaren babesa eta laguntza jasotzea. Honek izugarri errazten dio hona iristen den emakumeari bere bizitza egonkortzea eta behar dituen baliabideak eskuratzen joatea.

2. Familia jatorrizko herrialdean eta berriz ere elkartzea: espektatibak, zailtasunak eta ondorioak

Familiarekiko urruntasuna da emigratzearen alderdi ilunenetarikoa. Gainera, egoera juridikoak asko baldintzatzen ditu jatorrizko herrialdera itzuli eta familia ikusteko aukerak. Hau horrela, paperik ez duten emakumeek euren egoera erregularizatu arte familiarengandik urrun egon beharra izaten dute. Urruntasun honek zenbat iraun dezakeen, kasu bakoitzaren arabera, asko alda daiteke, baina gerta liteke 5 urtez ere norberaren herrialdera ezin itzuli ahal izatea. Horrek esan nahi du 5 urte luzetan familia eta gainerako lagunak ikusteko aukerarik ez izatea. **Egoera erregularizatutakoan, lehendabiziko lana beraz, familia bisitatzea** izaten da. **Aurrerantzean, maiztasunez** egin ohi dituzte bidaiak etxera, diruak aukera maten duen neurrian behintzat.

“Bueno, yo creo que... allí también te vas de vacaciones y te consideran...pues eso, extranjera y en tu propia tierra. No es que... llegas allí y... no sé, para ellos eres de fuera”

(Laura, Maroko, 42 urte)

“Sí, solemos... todos los años no, pero, de dos en tres años solemos, vamos a visitar a mi familia...Hombre, los hermanos para mi son un vínculo muy fuerte, lo que te he dicho, la afectividad para mi es un vínculo muy fuerte. Y razón de esto pues también voy a Brasil, estoy con ellos, ¿no?”

(Helena, Brasil, 45 urte)

“Dos veces al mes (llamo a mi familia en Ecuador), lo que me puedo permitir. Fui a visitarlos en cuanto me dieron los papeles”

(Vanessa, Ekuador, 34 urte)

Horregatik, oro har, baldintza horiek irauten duten bitartean, **jatorrizko herrialdeetan utzi diren senitartekoekin telefono bidezko harremana ohikoa** izaten da: ohikoa da emakume etorkinek astero etxera deitzea eta badira batzuk, egunero deitzen dutenak ere. Era honetako harremana (telefono bidezkoa eta maiztasun handikoa) urteetan luza daiteke.

“Hablamos cada semana por teléfono. Yo guardo un poco de dinero para él, mando. De momento así. Pero tengo el sueño que este año voy a traerlo, mejores ocasiones que tiene”

(Olga, Bulgaria, 33 urte)

“Al principio sí hablaba muy a menudo. Ahora una vez a la semana. Gracias a dios que hay locutorios con buen precio. Cuando vengo una vez a la semana estamos media hora o cuarenta minutos. De todos modos cuando cuelgas te acuerdas que te faltó algo por decir”

(Ludmila, Ukraina, 46 urte)

“Mis hermanos, mis abuelos y a mi madre. Cuando puedo llamo, cuando ahorro un poco. Una vez al mes, depende del dinero”

(Rosa, Ekuatore Ginea, 29 urte)

Familiari dirua bidaltzea ere bada, etxekoak hurbilago sentitzeko modua: **etxekoei ongizatea errazten dietenaren sentsazioa**. Hau oso nabarmena da emakume hauek gaixo dauden adineko gurasoak dituztenean eta osasun-arreta edota medikazio etengabea behar dutenean. Bestalde, dirua bidaltzea eta jatorrizko herrialdean geratu den familia ekonomikoki

emigratu duenaren menpe dagoela erakustea, familia berriro ere elkartzeko prozesuan lagungarria da.

“Ahora como mi abuela se ha quedado paralítica y son mayores, ahora les toca... cuando tengo dinero les mando para que puedan comprar medicamentos. Si pudiera trabajar traería a mi abuela a un hospital de aquí. Por lo menos que haya tenido los médicos de aquí, pero como no tengo trabajo”

(Rosa, Ekuatore Ginea, 29 urte)

“De momento no me quejo, están bien. 3 chicos que estudian y 2 chicas también que están en la universidad, mi papa no trabaja ahora y mi madre ya se ha cansado de hacer agricultura, ya sabemos lo que pasa allí, que tiene que plantar la yuca, maíz, plátano... por lo menos para sacar a la familia adelante. Hay chicos que estudian que los mantengo yo. Somos 15 del mismo padre y madre. Somos dos chicas y el resto chicos, uno tiene 22, el otro 19, el otro 18, a continuación hasta 13 años”

(Alfonsina, Ekuatore Ginea, 32 urte)

“Claro, yo pago los estudios de mi hija. Yo no tengo ninguna ayuda de mi marido. Además, mi marido era alcohólico. Era una pérdida en mi vida. () En Ucrania tengo dos hermanos menores. Entiendo que cada uno de ellos tiene a sus familias y que tienen dificultades económicas para mantener a sus familias. No puedo obligarles a ayudar a mi madre. Y sin la ayuda de mi madre, que vive con mi hija, yo no hubiera podido venir a España. Yo tengo que ayudar a mi madre”

(Ludmila, Ucrania, 46 urte)

Bikotekiderik ez, baina seme-alabak dituzten emakume etorkinen kasuan, seme-alaba horiek familiaren ardurapean utzi ohi dituzte; kasurik gehienetan amaren aldeko amona izaten da zaintzailea.

“Allí en Ucrania dejé a la hija, que tiene 21 años. Vive con mi madre, que es jubilada pero debido a su situación económica trabaja. Mi hija estudia hostelería, tercer año. El próximo año será el último. Tengo planes de que venga para acá”

(Ludmila, Ucrania, 46 urte)

“He dejado mi hija con mi madre (ya vivía con ella)”

(Mugi, Mongolia, 36 urte)

“Mi hijo está en Nicaragua. Es grande, tiene 17 años, con mis padres. Ya son unas personas mayores, pero, me han ayudado mucho en cuidar a mi hijo desde pequeño, porque allá los padres si dejan a un hijo si quieren le pasan (una pensión) y si quieren no. Entonces, uno tiene que correr con todo”

(Carmen, Nikaragua, 38 urte)

Esperientzia hau, seme-alabak jatorrizko herrialdean uztea, **oso esperientzia gogor gisa bizi dute** bai emakume etorkinek beraiek eta baita jatorrizko herrialdean geratu diren seme-alabek ere.

“Tengo un nene que tiene 10 años, se llama Julian, le quiero mucho, y me extraña que ahora está en Bulgaria () Con mis padres. Ahora tiene colegio, estudia. Yo prefiero aquí, que estudie aquí, quiero. Tengo ese sueño”

(Olga, Bulgaria, 33 urte)

Normalean, hona etorri den emakumearen egoera egonkortzen den neurrian, joera izaten da familia berriz ere elkartzen saiatzea. Baina ez da beti prozesu erraza izaten. Aitzitik, zailtasunez betetako bidea izaten da. Batetik, ez da prozesu abiagarria hemen paperik gabe dagoen jendearentzat eta beraz, paperik gabe dauden emakumeek ezin dute familia berriz ere elkartzeko prozesua abiatu (ez bada, modu irregularrean). Baina gainera, emakume batzuk ezin dute jatorrizko herrialdera itzuli, euren egitasmo migratorioa alde batera utzita ez bada. Horrek esan nahi du beraz, seme-alabak han utzita emigratzen duten emakumeek urteak ematen dituztela euren herrialdeetara itzultzeko aukerarik gabe, eta ondorioz, urte horietan seme-alabekiko harramana telefono bidezko baino ez dela izaten.

Bestetik, familia berriz ere elkartzeko prozesua abiatu nahi duen emakumeak paperak dituenean ere, zenbait baldintza bete behar ditu prozesu hori arrakastaz bideratzeko eta beraz, hori izaten da zailtasuna: baldintza horiek betetzea. Baldintza horien artean daude, bere izenean etxebizitza baten alokairu-kontratua edukitzea edota horretako behar diren baliabide ekonomikoak edukitzea.

“Pero no es tan fácil traer a mi hija para acá. Necesito una persona que le haga un contrato de trabajo. Me interesa que sea un restaurante o un bar, no como empleada de hogar. Tengo idea de que ella complete sus estudios y luego, quién sabe”

(Ludmila, Ukraina, 46 urte)

“No, no podía. Tenía que tener más tiempo y reagruparlos. Y el chaval pues se ha metido en un problema allá y le iban a matar y entonces, lo tuve que traer rápido, o sea, muy rápido”

(Luz, Kolonbia, 41 urte)

Baldintza hauek betetzeko zailtasuna askotan lotuta dago emakume etorkinek egiten duten lanarekin edota lantokian dituzten baldintzekin. Zailtasunen aurrean, batzuetan familia berriz ere elkartzen da, legeari jarraiki ez bada ere.

“Al año traje a David, en marzo hizo ahora seis años. Y la chavala en junio, sí. El marido vino a los dos años. A los dos, también a los dos. Iba a hacer los dos años y vino. Y, ahora estamos todos aquí. Vinieron con tres meses, la carta de invitación de los jefes donde trabajaba y la autorización mía para venir. Y bien, o sea, bien. Llegaron y los dejaron entrar. Muy contenta”

(Luz, Kolonbia, 41 urte)

Familia berriz ere elkartzeko prozesua abiatzeko abiapuntu okerrean daude ezkutuko merkatuan edo erdi-ezkutukoan lan egiten duten emakumeak (euren irabaziaz aitortzen ez dituztenak edo euren irabazien zati bat baino aitortzen ez dutenak, alegia), oso irabazi txikiak dituztenak edo/eta etxe-zerbitzuan interna gisa aritzen direnak eta ondorioz, etxebizitza propiorik ez dutenak.

Baina seme-alabekin berriro ere elkartzeak baditu bestelako zailtasunak ere, urruntasunaren ondorioekin eta aldenduta egondako denborarekin lotuta daudenak: seme-alaba hauetariko batzuk amak alde batera utzi dituen sententzia izan dute, ama errudun sentitzen da, harremana hoztu egin da, amaren figura zaintzaile-lana egin dutenek bete dute, etab. Beraz, berriz elkartze honek bere zailtasunak ditu, batzuetan gatazkatsua eta mingarria delako: sentimendu eta emozio horiek guztiak bideratzea eskatzen du, batzuetan seme-alaba horiek nerabearoan edo aurrenerabearoan iristen direlarik gainera.

Berriz ere elkartze horri **beste beldur bat** ere gehitu behar zaio: seme-alabek euren ustez **hemengo nerabeen artean ohikoak diren ohiturak hartzea**, euren jatorrizko herrialdeetan hain onartuta ez daudenak (gehiegizko askatasuna, alkohola eta bestelako drogak kontsumitzea, adinekoekiko errespetu-falta, etab.)

“Ese, ese es mi dolor de cabeza. La verdad es que al principio entró a trabajar en un taller y sí, iba bien, se consiguió su moto. Pero, empezó a andar con quién no tiene que andar y se fue metiendo en la droga y uff. Y ahí le vino la enfermedad mental. Sí, pero, en este momento está ingresado, pero, es que, él no quiere tomar la medicación. Ahora está en el hospital. En el psiquiátrico”

(Luz, Kolonbia, 41 urte)

“¿Los niños si cambian? Cada uno, su familia, si él ve que su familia, por ejemplo, rezan y hacen cosas bien, él va ha crecer así; si por el contrario, hacer contrario”

(Salma, Maroko)

Beraz, badago kezka seme-alabak dituzten emakume etorkinen artean, seme-alaba horiek hemen topatzen duten “gehiegi estimulatuak” giro horrekin. Horri gehitu behar zaio, **gurasoek edo amek euren seme-alabak zaintzeko edo haiei arreta emateko dituzten zailtasunak**, batez ere, ama irabazi-iturri bakarrak izan, eta seme-alaben ongizatea amen ardurapean dagoenean erabat. Ondorioz, **emakume etorkinek ez dute aukerarik izaten**, momentu jakin batean, lan-erritmoa jeitsi eta **bestelako asmo batzuei heltzeko**: ez beste lan bat bilatzeko, ez euren ikasketa-tituluak homologatzeko, ez formatzeko, etab. Emakume etorkinak bikotekidea badu, eta egoera horrek egoera hau leuntzen laguntzen badio, emakume etorkinari bestelako asmoak betetzeko aukera zabalduko zaio.

“Es un poco complicado todo. O sea, porque mientras estás tu no... por ejemplo, yo ahora, con el niño, con mi casa, con mis gastos yo no te voy a estudiar nada. Porque estaré yo ahí y como si no estoy. No sé si me explico (...) A mi muchas veces me han llamado para ir a hacer un curso, pero ¿a mi que me cuentas? ¿El curso va a darle leche a mi hijo? ¿No? es que mientras que el niño esté así yo no te voy a estudiar nada”

(Victoria, Ekuatore Ginea, 37 urte)

Azaldu ditugun zailtasun horien ondorioz, zenbait emakume etorkinek erabakitzen dute **familia hona ez elkartzea eta seme-alabak euren jatorrizko herrialdeetan edukitzen jarraitzea**.

“No, porque ¿sabes qué? como está estudiando y no puedo truncarle lo que él está estudiando. Me gustaría dejarle estudiar y venir a trabajar aquí y después regresar allá, sería..., mejor que estudie lo que él decida”

(Carmen, Nikaragua, 38 urte)

Seme-alabak zaintzeko garaian zailtasun handiak dira lanak eskatzen dien dedikazioa eta euren herrialdeetan izaten duten familia-sarea zabala hemen ez edukitzea. Faktore horiek beraiek ez dira lagungarriak familia berriz ere elkartzen den unea bideratzeko garaian, ez eta adinez txikikoen egokitze-prozesuan. Testuinguru horretan, bestelako baliabide batzuen eskasia ere, haurtzaindegi zerbitzuarena, adibidez, ez da lagungarria. Horregatik, martxan dira dagoeneko, ez seme-alabak edota bikotekideak hemen **elkartzeko prozesuak** bakarrik, baita **aiton-amonak ekartzekoak** ere.

“(Que venga mi madre) A mi me gustaría pero sería muy difícil, demasiado difícil, porque para que un guineano venga hasta aquí, es imposible, tiene que sacar hasta lo

último que tienen en el banco. Para que le den el visado, y el visado no lo dan fácil. Mi madre, que venga mi madre aunque sea un mes, ya que estoy aquí, que me venga a visitar, que se haga un revisión, que le vea un medico aquí, porque imagínate 15 partos"
(Alfonsina, Ekuatore Ginea, 32 urte)

"Subieron las encargadas y me dijeron, <Luz, por favor, no te vayas a ir, no sé qué...>. La encargada de encargadas, me dice: <Alba, ya sé que estás un poco disgustada, pero, ten paciencia, por favor>. La otra me decía <no te vayas a ir, no sé qué...> Y la otra también <Alba tranquila y esto...>. Y, entonces, la verdad es que me quieren un montón, las encargadas y nunca he tenido un problema con ellas, y, que <vienes a la noche, voy a la noche, que vienes a esto..., que si te puedes quedar hasta esto, me quedo, que si te puedes quedar, que si puedes venir>. O sea, estoy dispuesta para lo que..., nunca he dicho no, nunca les he dicho no"

(Luz, Kolonbia, 41 urte)

5. Lana, bizitza pertsonala eta bizitza familiarra uztartzeko zailtasunak

Laneko bizitza, pertsonala eta familiarra uztartzeko zailtasunei dagokienean, enplegu bat baino gehiago izan eta ama diren emakume etorkinek batzuetan seme-alabez arduratuko den senitartekoren baten laguntza dute, normalean, etxebizitza berean bizi dena. Baina, orokorrean, familia-buru diren eta karga familiarrak dituzten emakumeek familia zaintzearekin uztargarria den ordutegia duen lana topatu behar izaten dute. Hala ez bada, laguntza publikoa eskatu eta gutxieneko diru-sarrera horiekin bizi behar izaten dute.

"La mujer tiene un poco de dificultades para los niños y así. Con los niños, la mujer más difícil"

(Salma, Maroko)

"Cuando eran mis hijos pequeñitos no puede trabajar, siempre estoy con los niños en casa y ahora empiezo a moverme. Hasta ahora, cuando han crecido, van al cole y eso"

(Farah, Maroko, 25 urte)

"Bueno, bien, bien, del todo no puedo decir, no. Lo único que me preocupa ahora es encontrar un trabajo estable, un trabajo que me puede permitir llevar al niño al cole, cogerlo, o sea que te estoy hablando de una cosa que pueda entrar de 10 a 3. Que se amolde al horario del niño"

(Vicotira, Ekuatore Ginea, 38 urte)

"No, no he trabajado. Ya, pero, ahí está el grande reto, como te había dicho. Yo por eso que estoy ahora pues dedicándome a este curso, a ver si consigo algo en este sentido, porque la única cosa que me he dedicado fue a cuidar de mis hijos, y como te he dicho, finalizar ese tema que tenía encima de la mesa. Y que bastante yo tenía, no conseguía más. Yo no podía poner más encima de la mesa. No, no lo he intentando, porque como te digo, yo no puedo, yo tengo que cuidar de dos críos, y una casa"

(Helena, Brasil, 45 urte)

Edonola ere, merkatuan dagoen **lan-eskaintza zein den ikusita**, emakume etorkinen ustez beraiek **gizonek baino errazago dute lana** topatzea.

“Para las mujeres es más fácil respecto a los hombres... En general, los hombres tienen que trabajar en construcciones o en fábricas. Siendo una mujer ilegal, la gente se atreve más que con un hombre. Tengo unos amigos, chicos, que cuando vinieron aquí vivieron tres meses en los parques y bajo el puente, antes de encontrar trabajo. Encontrar trabajo es más fácil, pero vivir, me parece que es por igual. Quizás más difícil para una mujer”
(Ludmila, Ucrania, 46 urte)

“Me parece más fácil para las mujeres, para los hombres, muy difícil. Sí, una mujer cuando llega aquí, igual puede ir a limpiar una casa, puede meter en cualquier sitio a trabajar, pero, un hombre es muy difícil para encontrarse trabajo. Yo creo que es así”
(Farah, Maroko, 35 urte)

“Para las mujeres, para el trabajo de las mujeres un poco más. Para los hombres está muy difícil. Para las mujeres para trabajar, sí, porque hay más de cuidar señoras, de cuidar ancianas, de cuidar niños. Y para hombres no, casi no”
(Carmen, Nikaragua, 38 urte)

“A la hora de venir aquí, bueno, para coger el visado y todo eso, aquí es igual. La diferencia está en cuanto llegamos aquí ¿cuál es la diferencia? La diferencia es que las mujeres igual cuando no tienen trabajo, si no tienen medios, te metes a... ¿me entiendes lo que quiero decir? Entonces, los hombres no pueden meter en sitios iguales ¿me entiendes? Ahí está la diferencia, que lo pasan más mal los hombres que las mujeres porque las mujeres deciden voy a entrar en tal sitio. Yo no entré porque no necesitaba pero yo veo a mis paisanas que entran en esos sitios... ¿me entiendes lo que te quiero decir? Porque estás en la oscuridad, estas en una situación que ya no sabes ni qué hacer. La casa nadie te la paga, la luz, el agua y todo eso. Y te metes donde sea, pero los hombres no”
(Victoria, Ekuatore Ginea, 38 urte)

Emakumeak eta langileak: ondorio nagusiak

- Ordaindutako lanean sarbidea lortzea giltzarria da elkarrizketatutako emakume etorkinentzako.
- Lana lortzea baldintzatzen duten elementu nagusiak honako hauek dira: Atzerritarren Legeak jartzen dituen mugak, emakume etorkinentzako ohikoen diren eremuetako araudiak eta kasu askotan, biztanleria autoktonoaren jarrera xenofoboa.
- Emakume etorkinek lan-munduan dauzkaten aukerak, eremu jakinetara mugatuta daude (etxeke lanak, adineko pertsonen zaintzaile eta hostalaritzan, baliorik gutxieneko lanetan). Eremu horien ezaugarriak dira baldintza prekarioak eta gizarteak ikusten eta baloratzen ez dituen lanak direla.
- Euren egoera juridiko-administratiboaren irregulartasunak, eta baita egoera erregularizatutakoan mantendu beharreko baldintzen presioak, euren lan-baldintzak baldintzatzen dituzte eta ziurgabetasun-egoeran jartzen dute emakume etorkina. Baimenik lortzen ez duten emakumeak ezkutuko lana egitera kondenatuta daude.
- Kualifikatutako lanpostu bat lortzea oso zaila da legearen berarengatik, titulazioa homologatzeko behararengatik eta baita profesionalki berziklatzeko behararengatik ere.
- Lana bilatzeko bide gisa, badira lan-eskaera eta –eskaintza harremanetan jartzen duten erakunde bitartekariak, batzuk, erakunde publikoen zerbitzuak eta beste batzuk irabazi asmorik gabeak eta eliza katolikoarekin lotutakoak.
- Gure testuinguruan emakume etorkinek hutsetik hasi behar izaten dute eta ondorioz, esplotazio-egoerak, prekarioak eta enplegu-aniztasuna onartu behar izaten dituzte askotan.

Helduen formazioa, eskola eta hizkuntzak: prestakuntzaren hiru oinarriak

Formazioaz edo trebakuntzaz ari garenean, **hiru atal bereiziko ditugu**, oso diferentek direnak:

- Emakume helduen formazioa edo prestakuntza
- Seme-alaben eskolatzea
- Bertako hizkuntzen ikasketa: gaztelania eta euskara

1. Emakume helduen formazioa edo prestakuntza

Biztanleria orokorrak emakume etorkinen inguruan duen estereotipoari aurre eginez eta gehinetan batere lan ez kualifikatuak edo oso gutxi kualifikatuak egiten dituzten arren, zera esan beharra dago: emakume etorkinez dugun irudia ez datorrela bat errealitatearekin. Emakume **asko eta asko profesio edo lanbidea batekin etortzen dira** euren jatorrizko herrialdeetatik, bai **akademikoki prestakuntza hori jaso dutelako**, edota bai lan jakin bat garatuz **lan-esperientzia hori eskuratu dutelako**.

Gutxi dira beraz, ikasketa-maila baxuarekin iristen diren emakume etorkinak. Ikasketa-maila baxua duten horiek normalean Afrikako landa-eremuetatik, latinoamerikako zenbait herrialdeetatik eta Europako gutxiengo nomadetatik etorritakoak izaten dira: kultur-maila baxua dute, ez dute kualifikazio profesionalik eta batzuetan, alfabetatugabeak dira.

“He hecho estudios universitarios, no terminé mi carrera de Pedagogía. Trabajaba y estudiaba de maestra en un colegio privado...”

(Vanessa, Ekuador, 34 urte)

“Normal, estaba estudiando en la universidad y tengo dos años de secretaria de dirección, y ya está, normal”

(Salma, Maroko, 27 urte)

“Hombre, por supuesto, estudié Empresariales y trabajaba ahí, no se, no tiene nada que ver, fue un cambio muy drástico, muy drástico”

(Pilar, Dominikar Errepublika, 29 urte)

Emakume etorkin asko dira Helduen Heziketarako zerbitzuetara jotzen dutenak eta posible dutenean, lanera bideratutako formazio- edo prestakuntza-ikastaroak egiten dituzte. Hobetzea helburu dutenez, **ikasteko eta formatzeko irrikitan daude**. Adierazgarria da, adibidez, emakume asko izatea ikastaro bat baino gehiago egin dutenak. Gainera, oso kontuan hartzekoa da **egoera irregularrean dagoen jendeari bideratutako formazio-eskaintza ere** badela.

“Pero, yo, sí quisiera formarme más, porque quisiera saber más adelante y la ilusión mía es esa, formarme. O sea, me gusta mucho la enfermería, a mí me encanta, me encanta, pero, ahí está el problema”

(Luz, Kolonbia, 41 urte)

“Los cursos, que ayudan para hacer los cursos, para estudiar si quieres estudiar más. Y bueno, a mí me encanta la cocina, y al final he trabajado la cocina”

(Zawra, Maroko, 27 urte)

Emakume etorkinentzako **formazioa eskuratzeak interes argiak** ditu. Batetik, hobetzeko eta intelektualki garatzeko beharra. Formatzea denbora baliatzeko modu eraginkorra da, **merkatuan duten posizioa hobetzeko** balio baitezake. Emakume etorkinek dakarten formazioa eta euren herrialdeetan garatutako gaitasun profesionala edozein delarik ere, emakume etorkinek **lanbide jakinetarako sarbidea** baino ez dute, Estaltzen Zailak diren Jardueren Katalogoan jasota dauden horieta, hain zuzen ere. Beraz, kualifikazio-maila altua duten emakumeei ere, Atzerritarren Legeak ez die uzten kualifikatutako esperru profesional baterako lan-baimena eskuratzeke. Horrek **eragin zuzena du euren garapen pertsonal eta profesionalen**. Eragin zuzena du, adibidez, euren lan-baldintzetan, eskuratzen dituzten lanbideak, bertako biztanleek nahi ez dituztenak direlako. Baina gainera, eragin zuzena du bere garaian emakume hauek eskuratu zituzten **gaitasun eta trebetasun profesionalen galeran**. Horregatik, kasu askotan, emakume etorkinei beharrezkoa zaie euren jatorrizko herrialdeetatik dakartzaten ikasketak edo formazioa baliozkotzeak, nahiz eta jakin, prozesu luzea eta konplexua dela. Hain luzea eta konplexua izan daiteke baliozkotze-prozesua ezen zenbait emakumek **ez baitiote prozesuari heltzen**, ez dakitelako horri heltzeko **nahikoa denborarik eta dirurik** duten.

“Idioma! e idioma! Me encantan español, francés, inglés, quiero aprender”

(Olga, Bulgaria, 33 urte)

“Pero, yo sí quisiera formarme más, porque quisiera saber más adelante y la ilusión mía es esa, formarme. O sea, me gusta mucho la enfermería, a mí me encanta, me encanta...”

(Luz, Kolonbia, 41 urte)

“Si, me gustaría (convalidar mis estudios) pero yo no terminé mi carrera, tengo que terminarla para tener la titulación. () Pero tendría que ir a Ecuador...”

(Vanessa, Ekuador, 34 urte)

“¡Oh! es que tengo que convalidar y con mi país no hay acuerdo para convalidar, tendría que volver a estudiar otra vez y ya no quiero. Ya, porque me quemé mucho tiempo la pestaña y... y ya no quiero volver. Ya quiero trabajar, tener una estabilidad, tener mis hijos, ya no me importa... o sea, era lo que me gustaba pero, nada, tengo que vivir, no puedo...”

(Pilar, Dominikar Errepublika, 29 urte)

Bestalde, formazio-ikastaroetan parte hartzeak **erraz dezake errotze-prozesuei heltzea**.

Formazio-ikastaroak **ongi baloratzen dira**, baita **gizarte-harremanerako eremu gisa** ere. Ikastaro horietan emakume etorkinek berdinen arteko harremanak dituzte, bai beste etorkinekin, eta baita jende autoktonoarekin ere. Ondorioz, era honetako ikastaroek elkar ezagutzeko plataforma gisa balio dezakete.

“Por ejemplo, ahora, en la cocina, estamos con una chica que es de aquí, es vasca, y ella esta encantada con nosotras. Ahí le cuenta a sus padres y cada día nos lleva noticias <Ahí que les he dicho como son...>. Y vamos a salir, lo que sea y nos dice <con vosotras, con nosotras> y eso da gusto”

(Pilar, Dominikar Errepublikar, 29 urte)

“Positivo yo creo que todo, porque aprendes, aprendes de ahí, vamos a decir, tres o cuatro países que yo me ha tocado estar, en los cursillos que hemos hecho, con tres o cuatro países, entonces, pues cada uno te cuenta sus cosas y todo eso y no sé, a mí, desde luego, me gusta lo que me cuenta todo el mundo y me gusta escuchar y me gustan las... hay costumbres que me gustan mucho, aparte de las de aquí y de Marruecos y eso, pues me gustan”

(Laura, Maroko, 42 urte)

Alabaina, badira **zenbait faktore emakumeek ikastaroetan parte hartzea eta euren formazioa hobetzea eragozten dutenak**: denbora falta. Denbora-falta hori lotuta dago lanaldi luzeekin eta formazio, lana eta, askotan, bizitza familiarra uztartzeko baliabide faltarekin.

“No creo, con el alquiler que tengo, con los gastos, no creo. Me gustaría estudiar pero no puedo”

(Zawra, Maroko, 27 urte)

“No, era subvencionado por ellos mismos. Pero, tuve que dejar de trabajar esos tres meses y ¡madre mía!. La pasé mal porque no ganaba y había que pagar la renta y historias”

(Luz, Kolonbia, 41 urte)

“A parte de tener tiempo, tú sabes que yo tengo los gastos que tengo que hacer, entonces, más necesito trabajar que hacer cursos porque luego para todo lo que tengo... A mi muchas veces me han llamado para ir a hacer un curso, pero ¿a mi qué me cuentas? ¿El curso va a darle leche a mi hijo? ¿No? es que mientras que el niño esté así yo no te voy a estudiar nada. Lo siento, me gustaría. ¿A quién no?”

(Victoria, Ekuatore Ginea, 38 urte)

2. Seme-alabak eskolatzea

Seme-alabak eskolatzea emakumen ardurapena geratzen den gaia da nagusiki. **Eskola**, beste batzuekin **bildu eta harremanak izateko sozializatzeko eta gizarte-barneratze**ko eremu garrantzitsua da. Ikastetxean umeen eremu tradizionalarekin lotuta ez dauden harremanak sortzen dira, berezko harremanetarako, eta kasu honetan, kultura artekoak diren harremanetarako espazioa sortuz.

Halere, **eskola positiboki baloratu arren**, eskolatzeko adinean dauden seme-alabak dituzten emakume etorkinentzako **bada ere kezka-iturria**. Izan ere, sarri asko, emakume etorkinek zailtasunak dituzte **gure hezkuntza-sistema ulertzeko**. Eta hala den neurrian, zaila da emakume etorkinek egoki jotzen dituzten erabakiak euren kabuz hartu ahal izatea, eta baita, euren seme-alaben eskolatzearrarakastatsua izan dadin eskolarekiko harreman egokia izatea. Hona etortzen diren emakumeek hemen topatzen dutena da, askotan etorri berritan, hezkuntza-sistema desberdin bat, bere funtzionamendu eta ohiturekin, harreman-sistema desberdinarekin eta euren jatorrizko herrialdeetan ezagutzen ez dituzten hizkuntza-ereduekin.

“Ahora están en Plaiaundi, en Irun, está haciendo segundo de bachiller, ahora termina.

Pues, sí, en castellano”

(Luz, Kolonbia, 41 urte)

“Otro punto que estuve yo, también, analizando muy a fondo, porque, claro, cuando me vine para acá estaba ahí el tema del euskera, de los dos modelos. Cosa que también yo desconocía. Me tuve que enterar qué significaba cada modelo, el qué cada modelo, en qué se traducía cada modelo. Me fui, pues claro, antes de matricular a los críos, estaba yo dando vueltas qué modelo iba a encajar a mis hijos... Entonces, llega aquí con tantos idiomas, un lugar tan chiquitito y además, con tantos modelos y digo: <ahora ¿qué hago yo aquí? A ver ¿qué modelo...? ¿qué mé convence?, ¿qué modelo...?”

(Helena, Brasil, 45 urte)

Duela urte batzuk Eurko Jauraritzako Hezkuntza Sailaren irizpideak ziren adin txikiko etorkinak A edo B ereduatan matrikulatzea, euren egokitzea errazten zelakoan. Gaur egun, bestelako irizpideak erabiltzen dira eta **sustatzen dena da adin txikiko horiek B eta D ereduatan matrikulatzea**, ume eta gazte etorkinak konzentratzea ekiditzeko. Horixe bera da, Oarso-bidasoako Matrikulazio Batzordeak egin duen bidea, Eusko Jauraritzako Hezkuntza Sailaren irizpideei jarraiki. Seme-alaba hauek ama diren emakume etorkinek ere eredu horien aldeko apustua egiten dute, horixe iruditzen baitzaie aukerarik egokiena **sozializazio-baliabide sendoak eskuratzeko, bizi diren tokiko kultura ezagutzeko eta baita euskara ikasteko** ere. Aukera honen eragozpena da emakume etorkinek ez dutela euren seme-alaben formazio akademikoan inplikatzeko aukerarik, batez ere, seme-alabak D ereduari ari direnean

“Ahora, la mayor tiene 18 años, la segunda 15, la tercera 13 y el pequeño 12 años. Están estudiando todos. La mayor está haciendo el bachiller, la segunda está en tercero, la tercera está en segundo y el pequeño está en sexto. Todo en euskera. Tienen alguna cosa en castellano me parece, pero, dan todo en euskera... () Sí, en casa hablan (euskera) entre ellos cuando no quieren que me entere de algo. Sí, hablan euskera cuando llama alguien por teléfono, como amigas o profesoras o lo que sea, sí, en euskera”

(Farah, Maroko, 25 urte)

“El modelo B, bilingüe. Y esto, mis hijos aprenden los dos idiomas, porque yo digo, claro, aquí es donde se están los dos idiomas. Yo no quiero estar fuera del proceso. De una cierta manera, tengo un contacto a nivel de educación con mis hijos. Sí, yo le proporciono este modelo, y si les pusiera el otro modelo yo tendría que estar en parte aislada. Entonces, yo quería un modelo donde pudiera incluir lo máximo. Y el máximo modelo común donde hay, es el modelo bilingüe, en mi caso en particular”

(Helena, Brasil, 45 urte)

“En castellano y en euskera. Mi hijo, él pequeño (de 9 años) aprende euskera y mi niña (14 años) también, más castellano más, euskera un poco...”

(Lin, Txina, 35 urte)

Seme-alaba horiek eskolan txertatzen lagun dezakeen beste kontu bat zera da: eskolan ume edo gazte horien **jatorrizko herrialdeen egoera soziokulturala ere kontuan hartzea**. Emigratzea ezagutza-iturri eta elkar ezagutzako aukera gisa baliatzea. Horrek, batetik, eskola eta gizartea bera, oro har, aberastuko lituzke. Baina, gainera, **ume eta gazte horiei euren burua onartu eta baloratzeko aukera** eskainiko lieke. Eskolak, zalantzarik gabe, garatu ditu era honetako esperientziak, baina, gehiago landu beharra dagoen gaia da.

“Entonces, hay que ir mejorando esta situación en los colegios con las informaciones desde los profesores hacia los alumnos, para que los mismos alumnos desde pequeños vayan teniendo esta formación, de conocimiento a las culturas, y que vayan ellos mismos, digamos, aprendiendo el respeto y el valor hacia ellos mismos y hacia el resto de personas”

(Alejandra, Bolivia, 38 urte)

Halere, eskolaren esparruari dagozkion zailtasun hauetatik haratago, ez genuke ahaztu behar, eskolaz ari garenean, eskolatzeko-adina erabakiorra dela: zenbat eta txikiagoak izan ume etorkinak, orduan eta errazagoa izango da eskolara egokitzea eta alderantziz, zenbat eta helduago orduan eta zailtasun gehiago. Kasurik gehienetan, **nerabeak edo ia-nerabeak direla etortzen dira** eta **aurre egin behar diote** emigratzearekin (askotan, ez borondatezkoa) lotuta dauden **hainbat sentsazio, emozio eta erreakziori**: deserrotzea, ingurune berria ezagutzea, hizkuntza berria ikastea, batzuetan familiarekin berriz ere elkartzea, eta beste hainbat kontu. Honek guztia, zalantzarik gabe, **ondorioak ditu** adin horretan nagusi diren esparruetan: **eskolan eta familian**.

3. Bertako hizkuntzak ikastea: gaztelania eta euskara

Ulergarria den modura, behin hemen daudenean, gaztelania ez dakiten emakume etorkinen **lehendabiziko helburuetako bat** izaten da **gaztelania ikastea**. **Latinoamerikatik eta Ekuatore Gineatik datozen emakumeak jabetzen dira**, gainerako herrialdeetatik datozen emakumeekiko gaztelania jakiteagatik duten **abantailaz**.

“Hay diferencia. La diferencia es que, nosotros, por ejemplo, siendo de un país que habla español no pasa lo mismo que una persona que viene que no sabe ni decir hola ¿me entiendes? Ellos lo pasan peor que nosotras. Por que yo, al menos, yo vengo aquí y es como si tú vienes a Guinea. Tu me saludas y yo te entiendo... Y para el problema de los papeles lo pasan también ellos peor que nosotros, porque nosotros la ley nuestra es tú puedes estar con dos años de residencia, tú si quieres la nacionalidad te van a pedir mil papeles pero al menos antes de 5 años ya lo tienes ya en la mano. Ellos no tienen que esperar ya 10 años, que te quiero decir que hay mucha diferencia”

(Victoria, Ekuatore Ginea, 38 urte)

Gaztelania ez jakiteak nolabaiteko vulnerabilitate-sentsazioa eragiten du, zenbait kontuetarako ingurukoekiko mendekotasuna eragiten du eta zaildun edota **nabarmenki mugatzen du lan-mundurako sarbidea**. Horregatik guztiagatik, iritsi eta berehala gaztelania

ikastea izaten da lehentasuna. Paperik gabe egon eta gaztelania ez jakitea, babesik ezaren eta bulnerabilitatearen paradigma litzateke horrela.

“Y luego de tres o cuatro meses mi marido me apuntó al colegio, no sé. Sí, en la EPA y así empieza un poco a mejorar mi vida, je,je,je,je...”

(Olga, Bulgaria, 33 urte)

Zalantzarik gabe, **emakume etorkin guztiek ez duten gaztelania erraztasun berarekin ikasten**. Baina norberaren trebetasunetik aparte, badira, gaztelania ikastea **errazten edo zailtzen duten faktoreak**:

- **Jatorria eta jatorrizko hizkuntza** da faktore horietako bat. **Arazo gehien** duen kolektibotariko bat, oro har, Asiako herrialdeetatik datozen emakumeek osatutarikoa da, adibidez, **Txina eta Mongoliakoak**. **Magrebetik eta Errumaniatik** datozen emakumeek berriz, oro har, **errazago** ikasten dute.

“Antes sí, pero ahora no tengo tiempo para aprender un poco, antes sí. Hace dos años, casi dos años en la escuela para aprender castellano”

(Lin, Txina, 35 urte)

“Fui a la EPA, no sé, cuatro meses o cinco meses. No ha llegado al año. Y he aprendido con así poquito a poco, mi marido también me ha ayudado un poco y con la gente aquí”

(Zawra, Maroko, 27 urte)

“No, yo aprendí aquí... Sí, dos meses en Ermua, en la EPA. Y luego, hablando con la gente, claro”

(Salma, Maroko)

- **Egiten duen lanak eta lanak ematen dion harremanetarako aukerak** ere eragiten du ikasketa-prozesuan. Hizkuntza ez menderatzeak mugatu egiten du egin daitekeen lan-mota. Baina, ere berean, lanak berak, ez badu harremanetarako aukerarik ematen, zailago izango du emakume etorkinak maila ona lortzea.

“Sí, me apoyan mis amigas, en el trabajo mi jefe, mis compañeros. Antes cuando empecé a trabajar no sabía español y ellos con mucha paciencia y tranquilidad me ayudaban. Estoy contenta y feliz”

(Olga, Bulgaria, 33 urte)

“Al principio, en San Sebastián, trabajé en una familia con niños. Tuve suerte de que por la tarde, cuando recogía a los niños del autobús escolar e iba con ellos al parque a pasar la tarde, había un grupo de chicas cuidadoras vascas y españolas que me acogieron en su grupo y me “obligaron” a aprender español”

(Ludmila, Ukraina, 36 urte)

- Edonola ere, zailtasunik gehien hona **hezkuntza-maila baxuarekin** iristen diren emakumeek dute, batez ere, euren jatorrizko hizkuntzan **alfabetatugabeak** baldin badira. Topatu ditugu, adibidez, egoera horretan emakume errumaniarrak.

Azaldu dugun moduan, gaztelania ikastea hain lehentasunezkoa denez, emakume gehienak **EPAn joaten dira iritsi eta berehala**. Topatu ditugu emakumeak Errenteriara iritsi eta astebete edo hamabost eguneko epean EPAn matrikulatuta zeudenak. Ohikoena da **eskolak jasotzen ikasturte bat ere ez egitea** eta ikasketa-prozesuarekin kalean jarritzea.

Saihestezina dena eta eztabaidarik ez duena da EPAk jokatzeko duen erreferentziazko papera, gaztelaniadunak ez diren emakume etorkinentzako gaztelania ikasteko garaian. Emakume etorkinek beraiek **oso positiboki baloratzen dute EPA** eta horretarako, zenbait aspektu aipatzen dituzte: prezio baxua, irakaskuntzaren kalitatea eta jasotzen duten babes beroa.

“Sí, en la EPA y así empieza un poco a mejorar mi vida, je, je, je, je. Voy a clase, conozco a más gente y gracias a mis profesores, Isabel y Xabi yo aprendí un poco de español. No puedo decir que yo sé hablar muy bien...”

(Olga, Bulgaria, 33 urte)

Euskarari dagokionean, Errenterian komunikazio-hizkuntza nagusia gaztelania den neurrian, **euskara ikastea ez da lehentasuna** emakume etorkinentzako. Halere, emakume etorkin askok **interesgarri jotzen dute** euskara ikastea, eta horren erakusgarri da Euskaltegian etorkinekin osatu den taldea, batez ere, emakumeekin. **Biztanleria autoktonoarekiko antzerako status batean kokatzen lagun dezakeen baliabide** gisa ikusten da euskera gainera. Halere, gutxiengoa dira euskara ikasten ari diren edota ikasteko asmoa duten emakume etorkinak, batez ere, hizkuntza zailtzat baitaukat.

“Con Joseba nos juntamos en Errenteria en el euskaltegi para aprender [euskera]. () Por eso empecé cursos de euskera. Entiendo que vivo aquí y para acercarme más a la gente intento aprender su lengua natal. Para integrarme mejor, para un trabajo mejor, para una vida mejor. () (Es) Difícil. Ahora sólo pienso en las maletas y entonces el euskera se me hace muy difícil”

(Ludmila, Ukraina, 36 urte)

“¡Ay! he pensado, qué voy a hacer, qué quiero hacer después del doctorado, porque claro, aquí el problema de euskera, pues yo no voy a tener ningún acceso a la Universidad. Porque, cómo voy yo a llegar a pedir un espacio en una Universidad, cuando se pide de entrada que tu hables los dos idiomas y que yo no hablo los dos idiomas, bastante tengo con castellano,... como para tener un nivel al alcance de un profesor de universidad para enseñar, que es realmente mi formación”

(Helena, Brasil, 45 urte)

Euskara balio positibo gisa ikusten, batez ere, da **seme-alaben edo familiako gazteenen** hezkuntzaz ari garenean

“(Sus hijos) Todo en euskera. Sí, sí, sí, todo en euskera. Aquí se necesita, yo... no sé, para el trabajo, por ejemplo, el periódico, pues, lo que te viene, inglés, euskera y ya está y están estudiando por eso, todo en euskera”

(Laura, Maroko, 42 urte)

“Sí, tengo una hermana de 11 años que habla en euskera. Habla en casa español y en euskera, aprendemos mucho, contenta habla para nosotros español y euskera”

(Fátima, Maroko, 25 urte)

“La verdad es que cuando estuvo aquí, en el colegio de acá arriba de Beraun, la verdad es que el euskera le iba mejor que el inglés. Lo que pasa es que es muy dejada. Yo he insistido mucho en que ella aprenda el euskera. Pero me dice que no... porque yo ya me adelanté, porque los profesores le decían que, porque iba muy atrasada y si le explicaba lo de esto no sé qué... Entonces, así se quedo con la decepción del euskera. Pero yo siempre

le he recalcado que estudie el euskera. Sobre todo para los trabajos aquí, para más adelante o este"

(Luz, Kolonia, 41 urte)

Helduen formazioa, eskola eta hizkuntzak: ondorio nagusiak

Helduen formazioa

- Emakume etorkinen artean asko dira euren herrialdeetatik profesio edo lanbide batekin datozenak, akademikoki prestakuntza jaso dutelako edota lan jakin bat eginez esperientzia lortu dutelako.
- Emakume etorkinak hobetzeko grina dute eta beraz, ikasi eta formatzeko nahia oso presente dago. Formatzeak interes garbiak ditu: batetik, lan-merkatuan euren posizioa hobetzen lagun dezake, gainera, norberaren inguruko iritzia ere hobetu egiten da eta bestetik, errotze-prozesuei heltzea erraz dezake.
- Emakume horiek duten kualifikazioaren eta, kasurik gehienetan, egiten duten lanaren kualifikazioaren artean dagoen tartea euren garapen pertsonalean eta profesionalean ondorio garbiak ditu.
- Formatzeko garaian zailtasunik handienak lotuta daude formazioa, bizitza laborala eta familiarrekin uztartzeko zailtasunekin.

Seme-alabak eskolatzea

- Eskola elkartu, harremanak izan, sozializatu eta taldean txertatzeko gune garrantzitsua da, ama diren elkarrizketatutako emakume etorkinek oso ongi baloratzen dutena.
- Amentzako, beraiek baitira normalean seme-alabak eskolatzearen arduradunak, zaila da gure hezkuntza-sistema ulertzea: ohiturak, funtzionamendua, hizkuntza-ereduak, etab.
- Eskolatzen den ume edo gaztearentzako, zaila da dagoeneko eginda dagoen taldean eta bere erritmoan txertatzea, batez ere, komunikazio-hizkuntzak direnak ezagutzen ez baditu.
- Interesgarria eta beharrezkoa jotzen da ikastetxeetan dauden ume eta gazte etorkinen jatorrizko herrialdeetako errealitate soziokulturala kontuan hartzea, eta hezkuntza-ziklo osoan zehar nor bere burua ezagutzeko eta elkar baloratzeko espazioa eskaintzea.

Bertako hizkuntzak ikastea: gaztelania eta euskara

- Gaztelaniadunak ez diren herrialdeetatik datozen emakume etorkinentzat lehenetsia da gaztelania ikastea. Izan ere, gaztelania ez jakiteak babesik eza eta vulnerabilitatea eragiten baitu.
- Jatorria edo jatorrizko hizkuntza eta euren herrialdeetan jaso duten hezkuntza-mailak badu ereginik hizkuntza ikasteko erraztasun-mailan. Baina badira bestelako faktoreak ere, ikasketa-prozesuan eragiten dutenak, adibidez, egiten duten lanak harremanetarako eskaintzen dien aukera edo bere sozializazio-espazioak zein diren.
- EPAk erreferentziazko paper garrantzitsua jokatzen du eta oso ongi baloratzen da, baita sozializazio-espazio gisa ere.
- Euskara jakitea ez da lehenetsia emakume etorkinentzako, baina badira emakumeak euskara ikastea interesgarri jotzen dutenak: biztanleria

autoktonoarekiko berdintasunezko status batean kokatzen lagun dezakeen baliabide gisa ikusten dute.

- Euskara balio positibo gisa ikusten da seme-alaben edota familiako gainerako gazteen heziketaz ari garenean.

Desberdintasun kulturalen inguruko pertzepzioa

1. Egokitzea prozesu pertsonal gisa

Desberdintasun kulturalen inguruko pertzepzioa oso modu diferenteetan bizi dute emakume etorkinek, emakume horien beraien adierazle psikosozialean arabera: jatorrizko herrialde, erlijioa, emigrazioaren baldintzak, hizkuntza, emigratzeko arrazoiak, hemen daramaten denbora, etab. Baina, guztiak ere ados daude esaterakoan egokitzea, ohitzea, moldatzea, egun bizi diren gizarteko zati normalizatu sentitzea **prozesu zaila** dela. Eta zaila da, kapitulu honetan zehar deskribatuko ditugun **faktore-multzoarengatik**.

“Ah, lo más duro adaptarme, adaptarme a la otra gente que tiene otra cultura, que tiene todo otro, otro idioma, otro de todo. () Te adaptas porque aquí es todo distinto, es... otra manera de vivir, la gente son distinta y mucho más los vascos ya son ¡vamos! totalmente distintos, no tiene nada que ver. Pero bien, bueno, te vas poco a poco adaptando”

(Anna, Bulgaria, 26 urte)

“Te tienes que decir <Bueno, te tienes que adaptar a las costumbres>. Depende de las que sean pues tú te adaptas o no te adaptas, sea aquí o en Brasil o en cualquier lugar del mundo, ¿no? Las costumbres es algo que yo también hice mi trabajo a nivel individual”

(Helena, Brasil, 45 urte)

Gogorra izan arren, elkarrizketatutako emakume etorkinek gure gizartean egokitzearekiko jarrera positiboa dute. Prozesu hori bizi dute **aldaketa-prozesu gisa, ikasketa-prozesu gisa, pertsonalki garatzeko aukera aberasgarri gisa**. Interesa dute beraz, ohiturak, balioak, bizimoduak ezagutu eta bakoitzari interesatzen edo gustatzen zaizkion haiek bere bizimodura moldatzeko. Bestalde, egokitzea ere bada, bizirauteko modua, izan ere, harrera-gizartearengandik jaso nahi dena (lana, lagunak, gizarte-onarpena, etab.) eskuratzeko biderik hoberena baita.

“De cara al futuro puedes aprender algo, puedes aprender algo... y cuando se encuentran gentes de diferentes culturas, costumbres, de todo eso se saca siempre algo mejor. Por ejemplo, por navidad, cuando nos encontramos amigas, con una chica argentina, una de aquí y yo, bueno, preparamos comida. Una argentina hace comida argentina, hace una comida tradicional, una chica de aquí prepara una comida tradicional y por navidad yo también. Es diferente, es muy bueno, es bonito”

(Olga, Bulgaria, 33 urte)

“Yo solamente puedo decir que me adapté a las tradiciones de aquí por gusto de conocer cosas nuevas, por aprender”

(Ludmila, Ucrania, 46 urte)

Edonola ere, prozesuak esfortzua eskatzen du eta esfortzuak esan nahi du norberaren nortasun edo **identitate pertsonala baldintza berrietara egokitzea**. Horrek berarekin dakar, norberaren identitatea kolokan jarri eta nahi edo/eta aukeren arabera berregituratzea.

“Yo, tuve que cambiar, yo no sé si he cambiado, si he conseguido cambiar, mi manera de expresarme, porque sé que es una manera muy fluida. De chiquita he sido de una manera de expresarme muy fácil y cuando he llegado aquí esto sí me ha causado, me ha impactado, porque esta fluidez no es natural. La gente primero pues tiene un proceso, muy, muy lento, de acercamiento y yo llegaba y ¡boom! Y me descubría y decía las cosas como yo era. Y esto sí, y me di cuenta que no funcionaba, en cierta manera causaba algo extraño a los demás. Pero, esto era lo que yo era, y lo que yo sigo siendo, pero ahora de una forma más prudente”

(Helena, Brasil, 45 urte)

“Yo al estar aquí mucho tiempo, yo llevo la vida de aquí. Pero en cuanto salgo yo de aquí para mi tierra, yo soy Cristina de mi tierra. Pero cuando tengo que estar aquí yo tengo que hacer cosas de aquí, tanto que yo hago comida de aquí. Pero en cuanto salgo yo de aquí, si yo te llevo a Guinea tú no vas a comer la comida de aquí. Aquí llevo mi vida, me gusta acostumbrarme al sitio donde estoy. Yo hago siempre la comida de aquí, pero si me das de mi tierra te lo voy a agradecer. No me gusta complicar la vida. Lo que hay es lo que hay y lo que no hay no hay que ir buscando las cosas debajo de la cama”

(Victoria, Ekuatore Ginea, 38 urte)

“Y, también hay que tener mucho sentido común para, ¿no?, para que las cosas te vayan como a ti te parece, ¿no? No sólo porque les parezca bien a los demás. Yo solía escuchar, pero tú vienes y tienes que acostumbrarte a las cosas de aquí, como son aquí. Pero bueno, si las costumbres son buenas, yo me acoplo. Si está mal no tanto”

(Helena, Brasil, 45 urte)

Emakume etorkinen iritzia, beraiek egin duten **ahalegin hori autoktonook ere egin beharko genuke**: beraien bidez beste kultura batzuk, beste ohitura, balio eta bizimodu batzuk ezagutzeko eta geureak kolokan jartzeko aukera baliatu. Ahalegin hori ez egitea galera da bai emakume etorkinentzako eta baita, oro har, gizartearentzako.

“El emigrante es una persona, humano, piensa, deberían de conocernos, y la cultura que traemos, de entre culturas se puede sacar algo bonito. No saben lo que se pierden”

(Rosa, Ekuatore Ginea, 29 urte)

“Entre todos nosotros podemos entendernos. Yo cuando hago mi cena con mi gente de allí, tú no sabes. Lo solemos pasar bomba. Ir adaptando poco a poco, lo mismo que yo doy, tú también lo puedes dar. De cosas normales”

(Victoria, Ekuatore Ginea, 38 urte)

2. Ikuskera kulturek guztia hartzen dute: egunerokotasunetik hasi eta sakoneneraino

Ikuskera kultural desberdinei buruz ari garenean, balioen egiturarekin, kulturekin, bizimodurekin, ohiturekin, eta beste hainbat elementurekin zerikusia duten era guztietako aspektuei buruz ari gara. Gutxi dira beraz, desberdintasunetik edo talka egitetik libratzen diren alderdiak. **Kultur desberdintasun nagusienetarikoa da hizkuntza bera**, gizartean autonomiaz moldatzeko ezinbesteko tresna. Elementu giltzarria da, batez ere, gaztelaniadunak ez diren emakume etorkinentzako.

“No sé, cuando alguien no sabe ni el idioma, ni (conoce a) nadie... Cuando alguien ya aquí, no sabe hablar, da igual que quiera pedir un trabajo o lo que sea, aquí nadie va a entender lo que quiere, ¿me entiendes?. Entonces, muy, muy difícil. Si alguien llega y sabe hablar, y defenderse y preguntar, igual un poco mejor. Pero cuando alguien no sabe ni el idioma, no tiene ni familia ni nadie, pues se pasa muy mal”

(Farah, Maroko, 35 urte)

Badira ere, desberdintasun kulturalak **bigarren mailakoak** jo ditzakegunak baina egunerokoari oso lotuta daudenak, **gastronomiarekin edo klimarekin** lotutakoak, adibidez,

“Pues, me siento muy bien. Lo único que el frío no, no... Allá es un país tropical y muy caliente, es mucha calor y aquí el frío es lo único que... el frío el que te molesta”

(Carmen, Nikaragua, 38 urte)

“La comida un poco diferente. Antes nunca había comido pescado, aquí comí por primera vez. Pescado y marisco, je, je, je. En Bulgaria es caro, pescado y marisco y no hay comida tradicional con pescado y marisco. No hay paella, no hay tortilla ¡je! La comida y la cocina es muy diferente”

(Olga, Bulgaria, 33 urte)

“De comer sí, un poquito, comida rápida. No tenemos tiempo ni para preparar, yo como el pan una vez cada dos meses-tres meses, porque ahí comemos el pan de la casa, casero; aquí cogemos el pan, pum pum, rápido la comida, comer y ya. () Nos falta un poco la comida de mi país. Si quiero verdura o esto, tengo que esperar el autobús cuatro días o una semana. Si me apetece algo de verdura, tengo que esperar al autobús hasta que viene y me trae. La carne, no podemos comprar la carne fresca todos los días, tenemos una carnicería aquí, solo una”

(Zawra, Maroko, 27 urte)

Oro har, **bizimodua eta bizi-erritmoak** desberdinak dira.

“De Marruecos hace poco él (mi marido) me ha traído muchas cosas y ahí estuve en mi casa muy contenta a la mañana, porque me ha traído muchas cosas de ahí, la menta... esa mañana no he salido de casa, yo me sentía esta mañana una mujer marroquí en su casa que tiene que preparar las cosas, el pan a su marido, que va a venir del trabajo... porque no lo sentía hace tiempo. Él sale a la mañana, no nos vemos, yo entro a las tres, el sale a las 8, vengo a las diez o a las 11 cansada y a dormir. Al día siguiente a las 7, ¿entiendes? Estas cosas en Marruecos no...”

(Zawra, Maroko, 27 urte)

“... El abrigo, la comida...A no bailar... Al horario de las comidas, al tipo de comidas. Considero que el ritmo de vida es un poquito acelerado pero no es mucho, no es grande el trecho, es una cosa a la que me puedo acostumbrar y la veo normal”

(Melissa, Nikaragua, 25 urte)

Izaerek eta sozializatzeko garaian ohikoak diren ereduek, eta oro har, gizarte-harremanak edukitzeak ere bere egokitze-prozesua eskatzen dute.

“En Orio son muy cerrados y tal, pero nos aceptaron de maravilla (risas). Son cerradillos pero nos aceptaron como lo que éramos, somos marroquíes y a ellos les encantaba que les habláramos en marroquí, “<¿y esto cómo se llama? ¿y esto?> y, al contrario, todos los días había veinte o más allí, el primer año ha sido pues a preguntar, <¿y el pelo cómo se dice?>”

(Laura, Maroko, 42 urte)

“Y eso ha tardado, porque, como te he dicho, mi manera de ser, de ser más abierta, yo no soy nada desconfiada. Y claro, todo esto les causaba... claro, pues, para ellos también era nuevo, ¿no? Y para mí también esa manera cerrada. Pues vaya, aquí vamos a tener que... ¿cómo se dice?... lijar, hasta que empiece a funcionar bien”

(Helena, Brasil, 45 urte)

Desberdina da, adibidez, **emakume eta gizonen gizarte-rolen inguruko ikuskera**. Eta rol horien inguruko ikuskerak ondorio garbiak ditu gure gizarteko emakume eta gizonen portaeratan, balioetan, jarreratan, eta, oro har, bizimoetan.

Elkarrizketatu ditugun emakume gehienak eraldaketa-prozesu batean murgilduta daude. Baina eraldaketa-prozesu hori ez da abiatu harrerako gizartearen diskurtsoen ondorioz bakarrik. Kasu askotan, eraldaketa-prozesu horiek hona iritsi baino lehenago abiatu dira. Emakume etorkinak bere jatorrizko bizitokia utzi du eta elkarbizitza-estrategia berriak lantzen ari da. Emakume horrek urrats asko eman ditu autonomiarena dei dezakegun norabidean: erabakiak hartzea, arriskuei eta ardurei heltzea, emakume eta gizonen arteko harremanaren berdefinizioa, gizonekin harremanak beste ere batera antolatzen dituzten emakumeak ezagutzea, etab.

Emakume etorkinak hemen abantaila bat topatzen du: harrera-gizartean ikusten eta sentitzen duen askatasuna, berdintasuna eta independentzia. Bizipen hori oso hedatuta dago baina horretara emakume etorkinak modu desberdinean moldatzen dira jatorriaren edo jatorrizko kulturaren arabera (hurbilagoa ala urranagoa), adibidez. Autonomoagoak eta baloratuagoak diren eta berdinen arteko harremanetan oinarrituagoa dagoen gizarte batera moldatu beharra dute. Euren hitzetan, **irekiagoa, parekideagoa den gizarte batera**.

“La forma de ver las cosas, la mente más libre. Muchas cosas que no me atrevía a hacer en Ecuador aquí las hago normalmente. Sí por las circunstancias, porque vas viendo, no sé, yo me siento más libre”

(Vanessa, Ekuador, 34 urte)

“Sí, las mujeres aquí son más demócratas, tienen más derechos, más razón. Las mujeres aquí mandan, ¡je! Me gusta eso de aquí que las mujeres y los hombres son iguales, tienen los mismos derecho, misma razón, en casa y en el trabajo también. Como trabajan

en el mismo trabajo hombre y mujer, cobran mismo sueldo, no que una mujer cobra menos, no está ignorada"

(Olga, Bulgaria, 33 urte)

"Aquí, los hombres trabajan y las mujeres también. (Entre) Nosotros, tiene que haber diferencia y el hombre siempre tiene que estar arriba. Aquí, la mujer (es) como el hombre, igual, igual. Hay que ayudar, la mujer trabaja fuera de casa y dentro de la casa. El hombre también tiene que hacer así. A mi no me parece raro, no, no. A mi no me parece raro. Yo cuando veo a alguien en la tele le digo a mi marido, mira, tú también tienes que aprender. (Y él dice) ¡Ay! Para..., tengo cuatro mujeres en casa. ¡Yo voy a hacer cuando os tengo a vosotras! ¡Sí! Mis hijas le llaman machista"

(Farah, Maroko, 35 urte)

"Aquí hay más libertad, lo que me comentan las chicas que vienen aquí sin familia, sin marido, hay más libertad, pueden hacer lo que quieren; no como en mi país, allí la familia te sigue, te controlan, dónde estas, la hora, que esto..."

(Zawra, Maroko, 27 urte)

3. Identitate berria gatazka-iturri gisa

Kultur arteko interakzio edo elkarreragite horren ondorioa da emakume etorkinek hemengo hainbat ohitura eta balio beraien bizimoduetan txertatzea. Baina dinamika horren barruan, **bada beste indar bat ere**: zenbait emakume etorkinek **euren jatorrizko hainbat ohitura mantentzeko duten beharra eta nahia** eta horri ematen dioten garrantzia.

"Bueno, las costumbres, hacemos las costumbres de allí. Hacemos el Ramadán, rezamos, no comemos cerdo, no tomamos alcohol,... Y mis hijos hacen lo que ven en casa. Ven que nosotros no tomamos alcohol, ellos tampoco, ven que nosotros no comemos cerdo, ellos tampoco, rezar, sí. Ven que nosotros no salimos de marcha, ni de noche, ellos tampoco y ya está, esas cosas. Esas pequeñas cosas, lo que ven en casa, ellos hacen, nada más"

(Farah, Maroko, 35 urte)

Estrategia bat zein bestea, ohitura berriak hartzea, edota, ez hartzea, biak hala biak bihur daitezke gatazka-iturri.

Lehen estrategiak, harrera-gizartearenak diren ohiturak hartzeak **gatazka eragin dezake euren jatorrizko komunitatekoak diren kideekin**. Gatazkak eragin ditzake, adibidez, bikotekidearekin. Baina baita norbere buruarekin ere: identitatearen inguruko zalantzak eragin ditzake, norberak nor izan nahi duen, zer identitate eduki nahi duen.

Bestetik, emakumeen osasun fisiko eta mentalaren alterazio handiagoa nabarmentzen da **bizi-baldintzekin eta lan-egoerarekin lotuta**. Jaso dugunez, diferentzia nagusiak honako hauek dira: garatzen dituzten egitekoak, euren lanpostuen baldintza kaxkarrak eta bereziki, rolen gainkarga, sarri asko, ama ere badirelako. Etxeko lanak eta kaleko lana uztartu beharrari beraz, aipatu ditugun elementu horiek sortutako **estresa gehitu behar zaio**. Horrek guztiak, batzuetan, gaisotasuna dkar berarekin.

“Es la forma de comportarse de la gente, la sociedad. Te hace sentir triste, ¿por qué has venido?, ¿por qué...? No voy a estar amargándome toda la vida, prefiero irme a Francia y estar toda la vida allí”

(Alfonsina, Ekuatore Ginea, 32 urte)

“Sí, el aborto me lo hace el médico y me ha dicho que descanse. Porque el año pasado me han operado y me ha dicho, <tienes que estar tranquila y lo vas a intentar otra vez, pero de momento, tienes que estar tomando las pastillas y de momento dejar un poco de tiempo”

(Zawra, Maroko, 27 urte)

“Sí, sí y tengo... el mayor tiene 10 años y el pequeño tiene 6 años. Y, sí, claro, muchas veces, el síndrome de Ulises⁴ sí he tenido. Sí lo he tenido y ha sido muy fuerte y ¿qué hago yo aquí ahora? y quiero volver y cada historia y a llorar y llorar”

(Helena, Brasil, 45 urte)

Gizartean oro har, lan-munduan eta arlo juridikoan jasaten duten bazterketa da etorkin izatearen estigma bizkar gainean daramaten emakumeen artean sufrimendua eragiten duen beste elementuetariko bat. **Bazterketa lotuta dago jatorrizko herrialdearekin edo jatorri horren berri ematen duten kanpo-ezaugarriekin:** larru-azalaren kolorea, ile kizkurra, aurpegiera markatua, buruko zapia edo janzkera bera.

“El estigma de ser inmigrante. Pero, de alguna manera, hay que sobreponerse en determinados aspectos, porque el estigma de ser emigrante está ahí. Esto tuve que pasar como cualquier otra persona que emigra a cualquier otro país. Tal vez, este, unos que tú tienes que romper”

(Helena, Brasil, 45 urte)

“Nos ven como putas. A mí siempre me han tratado como una puta y muchas veces he dejado trabajos por eso. Es lo que yo veo. Nadie quiere ser emigrante. Es algo que por lo menos a mí me duele profundamente”

(Rosa, Ekuatore Ginea, 29 urte)

“Ahora que hablas del color de piel, hace unos días me pasó una avería aquí y vino un fontanero, un fontanero ya mayor, con dos chicos jóvenes y estaban poniendo allí y me empezó a hablar y me dijo <jjo!, es que a mí los marroquíes no me gustan nada> y el chico venga, allá atrás, <¡uuuy!>, el chico sabe quién soy ¿no? y el otro no y el joven le ponía todos los gestos y el otro me decía <es que a mí los marroquíes... no los trago> y yo callada <es que son... ese color tan feo de piel, es que cuando se me pone delante un marroquí es que ya me da asco> y el señor era mayor, ya te digo, a punto de jubilarse y yo pues, oye, me estaba hablando mal, descojonándome y el chico detrás haciendo gestos, <es que... ¿cómo puedes...?> yo me callé y el viejo <es que los marroquíes, es que ese color de piel, es que me dan asco...> y entonces yo le dije: <oye, que yo también soy marroquí y me estás... tienes a una delante y...> y me dice: <nooo, tú no> y le dice el chico: <¿cómo que no? ¡Claro que sí! Ella también es marroquí> y me dice el otro: <no, pero tú no eres como los otros porque no tienes ese color de piel> y luego el joven me dice: <jjo! es que esta gente mayor es más...> Y yo la verdad que me he reído porque después siguió hablando, le daba igual estar hablando con una marroquí. Y que le daban asco por el color de piel y ese pelo así que... Y me dijo: <no soy racista ¿eh?> (risas), digo: <¡Nooo! me lo estás

⁴ Joxeba Atxotegik (2006) Ulises sindromearen inguruan ohartarazten gaitu, etorkinek jasaten duten estres kroniko eta jasangaitza. Estatuan 1,5 milio etorkin baino gehiago daude gaitz hori dutenak, horietatik herenak, paperik gabeak, euren etorkizuna zein izango den ezagutzen ez dutenak. Atxotegiren hitzetan ezkutuko gaitza da, guk izebergaren tontorra baino ez omen dugu ikusten. Gainera, etorkin asko ez omen dira gizarte-zerbitzuetara joaten konfiantzarik ez dutelako batetik, baina baita ezagutza ezarengatik ere.

comentando>. <Es que la verdad yo no sé..., pero cuando veo alguien así...> y seguía... <¡es que me da un asco, no puedo verlo!>”

(Laura, Maroko, 42 urte)

“Yo tengo una... mi tía tiene pañuelo como Hanan y mucha gente le molesta a ella, le molesta. Como tiene pañuelo. Aquí, sí es un problema”

(Salma, Maroko)

Emakume etorkinei biztanleria autoktonoarendik bizi duten bazterketak eta nabarmen uzte horrek bi emozio eragiten dizkie, biak ere garrantzitsuak eta “etorkinaren estigmarekin” zuzenean lotutakoak: erru- eta lotsa-sentimenduak. Oso garrantzitsua da lotura hori azpimarratzea: **biztanleria autoktonoaren jarrera eta emakume etorkinaren alderdi psikosozialaren arteko harremana**, gizartearen eta emakumeen alderdi psiko horren arteko harremana.

“Y mis hijos para ir a buscarles al colegio, vergüenza. No se, les da corte. Una vez solo, de broma, les dije a mis hijos: <vengo a buscaros al colegio con el pañuelo>. Y la mayor <¡ni se te ocurra! vamos donde otra madre...”

(Farah, Maroko, 35 urte)

Egoera psikologikoan duen eraginarengatik, aipagarria da zenbait emakumek bizi izan duten **desengainua**. Desengainu horni sortzen da iturri diferenteen bidez (telebista, zinea, aldizkariak, lagun eta senitarteko arrakastatsuak, merkatariak, etab.) **sortu diren espektatibek, talka egiten dutenean eguneroko bizitzaren zailtasunekin**, egoera dramatikoekin eta era horretako bizipenekin. Desengainu horrek zuzenean eragiten du deseingainu hori bizi duen emakumearen egoera psikologikoan.

“Ya, yo, cuando vine, pues como me ofrecieron esas cosas así tan bonitas y me las pintaron. Ya, pues, que se consigue fácil trabajo y dinero, que se consigue muy bien y no se qué. Dije yo, <pues me cojo un piso y no se qué>. Te haces todas las películas. Pero, cuando vine para acá y te encuentras todas esas cosas y piedras en el camino y..., o sea, en el momento te dan ganas de irte. A mi me dan ganas de irme, lo que pasa es que, pensaba en el dinero de mi suegro, y dije, <si vuelvo allá otra vez con las manos vacías... Sin piso, o sea, empezar otra vez. Yo no. Me voy a quedar aquí y voy a luchar>. Pues ahora, la verdad es que, los siete años se me han pasado... ni los he sentido, la verdad”

(Luz, Kolonbia, 41 urte)

“Y está muriendo mucha gente. Se están perdiendo muchas vidas de la gente, pero lo peor de todo es que vienen y están peor que en su tierra, yo le digo a mi asistente, que <yo mejor en mi tierra que aquí>. Porque tú abandonas a tu familia, vienen y no tienen papeles, y si tienes papeles no tienes trabajo, y si quieres trabajo te dan algo imposible con el niño. Entonces ¿qué he hecho? una marcha hacia adelante y una marcha hacia atrás. ¿Qué he hecho? ¿Qué he ganado al salir de mi tierra? ¿me entiendes?”

(Victoria, Ekuatore Ginea, 38 urte)

4. Eusten dioten emakumeak: aurrera egiteko estrategiak

Aztertu diren gainerako kategoriatan (irregulartasun administratiboak eragindako ziurgabetasuna, bazterketa edo norberaren bizitzaren gaineko kontrolik eza) emakume etorkinek horiekin lotutako minak eta beldurrak adierazten dituzten arren, ez ditugu elementu bereizgarri adierazgarria topatu. Baina azpimarragarria da eusteko eta aurrera egiteko estrategiak garatzeko garaian, **elementu positibo asko** topatu ditugula emakumeen artean.

Aipatutako ondoezen aurrean, osasuna eta ongizatea mantentzeko emakumeek baliatzen dituzten **hainbat mekanismo** identifikatu ditugu: **gogo-aldarte positiboa bilatzea**, babesteko defentsa-mekanismo gisa, tristeziaren ukazio gisa...

“Yo siempre busco a la alegría. Mira, cuando cojo una planta ¡qué cosa más maravillosa! ¡Preciosa! Yo quiero se así, cómo esto, es que tenemos que enseñar lo mejor de nosotros, porque tenemos algo que enseñar mejor. Y cada día renovar, éste es mi estado de ánimo, es lo que yo intento, porque recordaré unos de Brasil, deja la tristeza de lado, ¿no?, porque con ella no vas a aportar la solución, los problemas que tengan que pasar, han de pasar. Pero, cuando está el ánimo elevado, te pasas de otra manera, de otro pasar, esto es lo que yo trabajo día a día. Cuando yo me levanto yo digo gracias por la vida y vamos a trabajar hoy, hoy. Y vamos, y las cosas van llegando, el tener confianza, el tener tesón y hacer las cosas y eso yo tengo, y esto no me falta nada, yo tengo demasiado, de verdad. Tanto que tengo que dar un frenazo porque sino me voy yo y no es así, hay que ir con calma porque sino las personas que están a tu alrededor y que necesito mejorar esta (...) y no solamente por estar ahí, ¿no?, vamos con calma y esto sí, me frena un poco porque a mi alrededor yo veo que hay mucho, mucha depresión, gente que está muy mal. Y yo digo, < intenta mejorar que ya verás tú que poco a poco se sale de los problemas>, pero, con esto mejorar, mejorarlo, me cuesta”

(Helena, Brasil, 45 urte)

Eztabaida-taldeetan, euren arteko elkarriketatan, **etengabe jotzen duten eurak baino egoera okerragoan dauden emakumeekin edo emakume etorkinekin “alderatzera”**. “Gizarte alderaketa abantailaduna” egiten dute. Alderaketa horretatik, euren buruak indartuta ateratzen dira eta beste horiek bizi duten egoera larriaz kezkatzen dira.

“Yo no me quejo. Pero me quejo ya con otra gente, que les veo que se mueren en el agua, ahogándose. Y ver que llega aquí e igual no va a tener ni trabajo, no tendrá la vida. Nosotros, los africanos, todavía estamos un poco cerrados, pensamos que al llegar a Europa ya vamos a tener todo y es un engaño muy grande que yo no sé qué hacer para decirles que la vida cuesta como allí aquí ¿me entiendes?”

(Victoria, Ekuatore Ginea, 38 urte)

“De otra manera, sí, eso es lo que quiero decir. Que muchos creen que al llegar aquí ya tienen la vida en la bandeja. ¡Se mueren! ¡se mueren tantos! Que cuando llegan aquí lo que creen que van a encontrar no lo encuentran. Si fuera yo uno de ellos, porque yo vine aquí a curarme, aquí está lo que vine yo a buscar, el problema es que tú ya sabes que la vida de aquí, que si fuera que mi voluntad, saco el niño y me voy a África que voy a vivir bien, he vivido bien siempre. Pero es peor la vida de otra gente que... ¿me entiendes?”

(Victoria, Ekuatore Ginea, 38 urte)

“Alderaketa abantailadun” horrek jatorrizko herrialdeaz duten ikuspegian ere eragiten du: **desengainua sentitzen dute jatorrizko herrialdeak bizi duen egoeragatik** eta ondorioz, prozesu migratorioa bera eta harrera-herrialdearen inguruko ikuspegia positiboki indartu egiten da. Analisi horren ondorioz, itzultzeko ideiarri uko egiten zaio.

“No, no tengo perspectivas (de volver). El otro día este chico argelino (el que me ayudó) me preguntó <¿Por qué quieres traer a tu hija? ¿No es más fácil que le mandes una cantidad de dinero? Aquí no podrás comprar una vivienda. Teniendo la vivienda de tu madre, sería más fácil que tu madre montara algún negocio allí>. Es muy buena idea pero yo le pregunté si sabía que era el Reket⁵. A menudo hablamos de mafias que obligan a los propietarios a pagar. Eso es el Reket. Y eso existe en Ucrania. Además, con el gobierno que hay ahora podemos decir que el Reket esta a nivel de gobierno”
(Ludmila, Ucrania, 46 urte)

Normalean, prozesu migratorioaz eta hona egokitzeko prozesuaz egiten duten **balantzea positiboa** da eta hartutako erabakiarekin harro daudela ikusten da. Askotan erlatibizatu egiten den **zailtasunari aurre egiteko tresna nagusia jarrera** da, jarrera positibo eta bitalista.

“No, aquí me gusta más y casi no pienso regresar a Bulgaria, quiero aprender aquí español, quiero estudiar. Tengo muchos sueños. Estoy contenta y feliz”
(Olga, Bulgaria, 33 urte)

“Desde hace tiempo estoy discutiendo con muchos conocidos míos sobre esa enfermedad de moda: la depresión. No entiendo eso. Me pone furiosa. No entiendo cómo se puede enfermar así. Me parece que es un lujo, y es un lujo enorme. Esa persona que tiene depresión no tiene nada más para hacer. No tiene problemas. Solamente centrarse en si misma, encerrarse en si misma y compadecerse de si misma. Yo no tengo ese lujo. Sí, yo también tengo mis penas y lloro. Tengo mis desgracias y mis problemas pero el otro día me dijeron <tú siempre sonríes>. ¿Qué gano con llorar? Nada. Lo voy a pasar mal yo y tú lo vas a pasar mal. Otra vez no querrás volver a quedar conmigo. Por eso mismo yo me alejé de algunas compañeras mías con las que tuve amistad desde el principio. Porque se compadecían a ellas mismas. <Chicas, tenemos el fin de semana. Tenemos horas que podemos andar por la ciudad. Podemos disfrutar el sol>. Yo vine de una región que está muy lejos del mar y antes de venir a San Sebastián había visto el mar cinco veces en mi vida. ¡Vamos a disfrutar de esta maravilla! No, ellas se juntan y hablan de que lo pasan mal y de que sus señoras son pesadas. Vale, yo lo entiendo pero es tu trabajo y tú tienes que entender que es una persona mayor, que sabes que los mayores son peores que los niños. Por alguna causa tu cogiste este trabajo. Si no te gusta déjalo y búscate otro o arréglate de alguna manera. Todos tenemos problemas. Por ese motivo me alejé de muchas compañeras. Con quien mantengo amistad saben que conmigo, las quejas lo menos posible”
(Ludmila, Ucrania, 46 urte)

⁵ Ukraniako mafiaz ari da.

Emakume etorkinen egoera psikosoziala: ondorio nagusiak

- Nahiz eta egitasmo migratorioari heltzen dioten emakumeak normalean emakume osasuntsuak izaten diren, emigratzeak suposatzen duen aldaketaren gogortasunak, deserrotze-prozesu bati aurre egin behar izateak, jatorriarekiko aldentzeak eta galerek (familia, kultura, hizkuntza...) emakume etorkinen egoera emozionala aztoratzen dute.
- Horregatik, emakume etorkinek bizi izaten dituzten aztoramendu fisiko eta mentalak ez dira gaisotasunaren edo patologiaren sinonimo. Aitzitik, arrazoi estrukturalekin lotuta daude: emigratzearekin berarekin lotuta, irregulartasun egoerarekin eta bizi dituzten baldintza soziolaboralekin.
- Deserrotze familiarrak eta kulturalak tristezia eta kezka eragiten dituzte
- Egitura familiarrean emakumeek duten posizioa dela eta, nekea eta estresa eragiten duten kezka eta arazoak hartu behar izaten dituzten euren gain.
- Profil profesionalean behera egitea eta bazterketa, identitate pertsonalaren eta taldekoaren elementu debalutzaileak dira eta emakumeen autoestimuan eta euren buruaz duten iritzian eragina dute.
- Eragin negatiboa duten faktoreen aurrean, euren ongizate psikosoziala osasuntsu mantentzeko hainbat estrategia erabiltzen dituzte emakume etorkinek: jatorriarekiko lotura mantentzea, harrerako testuinguruan gizarte-sareak sortzea, zailtasunari aurre egiteko tresna gisa jarrera positibo eta bitalista eta hartutako erabakiari zentzua ematen dioten elementuak bilatzea.
- Emakume etorkinen ongizate emozionala areagotu nahi badubu, beharrezkoa da bizi dituzten baldintza estrukturalak kontuan hartuko dituzten esku-hartze komunitarioak garatzea.

Ondorio orokorrak

Erreterian bizi diren emakume etorkinen inguruko ikerlana jasotzen duen txosten honetan zehar, norberaren testuingurutik irten, hona iritsi, hemen kokatu, eta bere konplexutasuna eta bere kontraesanak dituen ingurune sozioekonomiko, kultural eta politiko berri batean txertatzeko prozesuak duen **konplexutasunaren eta tamainaren berri** jaso nahi izan dugu.

Giza-mugimenduak aztertzeke garaian, garrantzitsua da mugimendu horien **eragiten duten hainbat faktore** kontuan hartzea. Kontuan hartzekeak dira, adibidez, jatorrizko herrialdeetako egoera ekonomiko edo/eta politikoak, mundu-mailako merkatuen artikulazio desorekatua, erosketa-gaitasuna galtzea, etab. Baina, halaber, kontuan hartzekeak dira, besteak beste: bakoitzak jatorrizko bere herrialdean bizi duen egoera pertsonal eta soziala, marko sozioestruktural eta kulturala, familia-egitura, genero-harremanak, erreferentzia migratzaileak eta garatutako estrategia eta sareak.

Horri gehitu behar zaizkio **harrerako testuinguruari dagozkion aldagaiak** eta begirada Euskal Herrira edo Espainiara bideratu dutenak: 80. eta 90. hamarkadetan mundu-mailako lan-merkatuetan gertatu ziren aldaketak, industriaren mugarik gabeko leku-aldatzea eta zerbitzuen sektorearen kontzentrazioa. Lan-eskaera handia zuten Europa erdialdeko herrialdeetara zihoazen etorkinen pasoko tokia izateari utzi diogu eta etorkinen hartzaile gara orain, haietan mugak itxi dituztelako eta gurean garapen ekonomiko handia bizi izan dugulako. Horri gehitu behar zaizkio Mediterraneoaren alde bietako eta espainiar kolonia izan diren herrialdeekiko lotura historiko eta ekonomiko garrantzitsuak. Azken hauentzako Espainia EEBBen alternatiba bihurtu da jomuga gisa.

Testuinguru horretan, gaur egun **Erreterian bizi diren emakumeen esperientziak aztertu ditugu**: emigratu aurretik bizi zuten egoetatik hasi eta gaur egun bizi duten egoera sozioekonomiko, familiar eta emozionalera. Tartean, prozesu-migratzailearen ezaugarriak aztertu ditugu, horretarako, egoera juridikoa, lan-egoera eta etxebizitzarena aztertuz.

Horrela, zera esan liteke, norberaren herria, senitartekoak, seme-alabak, lanak edo/eta **aurreko testuinguruak uzteke erabakia faktore ugari** eragindako da, besteak beste: jomugan loturak izatea, familia-egoera konplexua, aukera pertsonalak, nazioarteko hitzarmenak, gurasobakarra izatea edo familia barruko bortizkeria, dibortzioak, krisi ekonomikoak, erreferente-migratzaileak, familia-buru izatea, lanek eta senitartekoek osaturiko kateak... horiek guztiak eta gehiago izan daitezke honako saltoa emateko erabakia hartzen lagun dezaketen erabakiak. Arrazoi horiek medio iritsiko dira generoaren araberrako banaketaren baitan egituratutako merkatu batera non industria mugarik gabe leku-aldatzen den eta zerbitzuen sektorea gorantz doan.

Behin emigratu aurreko motibazioak ezagututa, egoera juridikoari helduko diogu testuinguru legalak emakumeen bizitzetan nola eragiten duen ikusteko. Izan ere, lan honetan jasotako testigantzen bidez ohartarazi zaigun modura, Europar Batasunetik kanporako etorkin izateak **Atzerritarren Legeak (14/2003 LO) jartzen dituen mugen eta traben bidez bizitzako gainerako eremuak baldintzatzen** ditu: lanarena, etxebizitzarena, soziala, familiarra eta pertsonala. Erregularizazio-prozesuak hainbat fase ditu eta 5 urte baino gehiago iraun dezake: erroldatzea, aldi baterako lan- eta etxebizitza-baimenak, behin betiko baimenak, familia berriz ere elkartzeko eskubidea eta, azkenik, nazionalitate. Pertsona guztiek ez dute ibilbide bera egiten eta abiapuntu eta helmugak ere ez dira beti berdinak. Izan ere, behin lan-baimena lortuta ere, itzul liteke etorkin bat haserako abiapuntura.

Lan-egoera aztertzerakoan ikusi dugu oso lotuta dagoela **pertsona bakoitzaren legezko egoerarekin**. Behin-behinekotasunak, urtebeteko baimenarekiko menpekotasunak, baimen berritu behar izateak, kotizatzeak eta kotizatzen jarraitu behar izateak... horrek guztiak, lan prekarioa dakar berarekin eta askotan, bi lan egin beharra, bata aitortua eta beste aitortu gabea; lan batek bestearen kotizazioak ordainduko ditu horrela.

Hemengo lan-munduan, berriz, **testuingurua** honako hau da: langile etorkinen eskaera dago, biztanleria zahartzen ari da, gizarte-politikak atzera ari dira, lan-baldintza hobekiak lortu ditzaketan biztanleak gehiago dira eta emakume europarrak etxetik kanpora irtenak dirak lanera. **Erregularizatzeko aukerak eta bideak** (Erregimen Orokorra eta kontingente bidezkoa) **etorkinen lan-espazioa nabarmen mugatzen** dute: hiritarrentzako zerbitzuen eremuan, merkatu-segmentu bakoitzean baliorik gutxien ematen zaien enpleguetan topatzen dute etorkinek tokia. Adierazgarria da, era beran, lan-merkatuak rolen arteko banaketari dagokionean, erakusten duen parekidetasunik eza: tradizionalki emakueenak izan diren lanak dira, oinarrian gizarte-eskalan baxuenak, gaur egun etorkinak eskuratzen dituztenak. Beriziki aipatu beharreko kontua da Servicio al Hogar Familiar erregulazio berezia (1424/1985 ED), izan ere, aski ezagunak dira bertan jasotzen diren baldintzen prekaritatea eta berdintasunik eza, eta hain zuzen ere, erregulazio horrek araututako lan-eremua da emakume etorkinen lan-eremu nagusia.

Etxeko lanen eremuan (zaintzaile/neskame) aipagarriak dira **lan-baldintza gogorrak**: bakarrik bizi diren eta Alzheimer gaitzak jota dauden adinekoak zaindu behar izaten dituzte gehienetan, pertsona horien eguneroko beharrei erantzunez eta horrez gain, etxeko-lanak ere eginez.

Ikusi ahal izan dugu, lan eta langile etorkinak bilatzeko garaian, badirelako **bitartekari lana egiten duten erakunde batzuk**, gehienak irabazi asmorik gabeak eta liza katolikoarekin lotutakoak (Caritas, Gurutze Gorria, etab.) lan-eskaera eta -eskaintza harremanetan jartzen dutenak, lana formala ala ezkutukoa izan. Errenterian bizi diren emakume etorkinentzako erakunde hauek aski ezagunak dira.

Ez da gauza bera gertatzen Ongizate Zerbitzuez ari garenean. Askoz ere gutxiago jotzen dute bertara emakume etorkinek: batzuetan, beharrik izan ez dutelako, beste batzuetan hemen denbora gutxi daramatekoa eta ezagutzen ez dituztelako. Egoera erregularrean daudenean, bestelako bide formaletara ere jotzen dute: Langaira edo Udalaren menpeko diren formazio- eta enplegu-programetara.

Lan-esparruan emakume etorkinek bizi duten egoerarekin batera, **etxebizitzaren eremua da** emakume etorkinentzako **arazo-iturri nagusienetarikoa** gurean finkatzeko garaian. Esparru

honetako bizi dituzten zailtasunik handienak dira etxebizitzek duten prezio altua, etxebizitza eskuratzeko nomina eduki beharra, banku-berme bat lortzeko soldata txikiegiak dukitza eta biztanleria autoktonoaren aldetik, jarrera xenofoboak. Aipatutako zailtasunen aurrean, estrategiak ugariak dira: errentan hartu duenak bigarrenez alokatzea, lan egiten den etxean bizitzea, beste batzuekin etxebizitza partekatzea, elkartasuna edo/eta erakundeen laguntza,

Etxebizitza lortzeko zailtasunak ez gainditzeak familia berriz ere elkartu ezina ekar dezake. Alegia, familia berriz ere elkartzeko Atzerritarren Legeak jartzen dituen zailtasunek (familia berria ere elkartzeko lan-egoerak ona izan behar du, egoera erregularrean egon behar da eta baldintza egokiak dituen etxebizitza eduki) senitartekoen arteko banaketa behartuak eragiten dituzte eta horrek ondorio larriak ditu, familia berriz ere elkartzen denean agerian gelditzen direnak.

Egitasmo migratorioaren pisua hartu duten elkarrizketatutako emakumeen artean, batzuk hemen duten jada euren familia. Urte batzuetan zehar sortu zaizkien traba legalak gainditu dituzte eta lortu duten familia (seme-alabak, senarra edo bikotekidea, gurasoak...) berriz ere elkartzea. Familiarengandik urruntzea da, hain zuzen ere, emigratu izanaren alderdi txarrenetako bat eta irregulartasunak irauten duen bitartean, familiarekiko urruntasunak ere urteetan iraun dezake. Behin familia berriz ere elkartzen denean, seme-alabak ekarri direnean edota senarra etorri denean, **familiak funtzionamendu berri bati egin behar dio aurre**, askotan rol tradizionalak, ordura arte ezagutu dituztenak, aldatuta baitaude: senarrek deskubritzen dute emazteak direla familia-buru eta eurak lana topatu bitartean euren bizkar bizi beharra dutela; gurasoak deskubritzen dute seme-alabek aurre egiten dietela edota eren rola beste batek bete duela. Familiari nabarmen eragiten dioten banaketa ondorengo berriro elkartze hauek gertatzen dira gainera egoera horri eutsi ezin diotela: familia berriro ere elkartu duen ama edo aita, edota biak, lansairo luzeetan murgilduta daude, edo jatorrizko herrialdeetan bezalako familia-sare baten faltan, ez da seme-alabekin egoteko tartetik ateratzen.

Familia berriz ere elkartzea egoera konplexua da beraz, eta badu **beste osagarri bat** ere: **seme-alabek hemengo gizartean txertatu** beharra dute. Adin txikikoek eskolaren bidez egiten dute bide hori, eta eskola, hain zuzen ere, elkar ezagutu, harremanak izan, sozializatu eta gizartean txertatzeko funtsezko eremua da. Gazteek hauek, baina, ez dute lan erraza: emigrazioa barneratu behar dute, euren gurasoekin berriz ere elkartzea eta eskola-komunitatean desberdin gisa deskubritu behar duten euren burua. Eskolara gainera, ikasturtea hasitakoan iristen dira, euskara ez dakitela, eta batzuetan, gaztelania ere ez dakitela. Kasu batzuetan, eskolaren eremuan, ume etorkinen edo etorkinen seme-alaben kontzentrazio artifizialak gertatzen dira. Eskola-eremuko hizkuntza-ereduek eta etorkinek horien inguruan duten ezjakintasunak badute zerikusirik horretan, baina baita biztanleria autoktonoaren jarrerak ere: badira gizartean hainbat guraso-sektore euren seme-alabak etorkinen presentzia erlatiboki altua duten zentroetara bidaltzeko prest ez daudenak.

Elkarrizketen bidez jaso dugun beste alderdi interesgarri bat, **helduen formazioari eta hizkuntzen**, gaztelaniaren eta euskararen, **ikaskuntzari lotutakoa** da. Batetik, zera ageri da: aurretik dakarten formazioa, ikasketak homologatu ahal izateko epeak eta lan-eskaintzak ez datozela bat. Horrek izugarri eragiten du euren egoera emozionalean, izan ere, oro har, Atzerritarren Legeak ez die aukerarik ematen lehendabiziko lan-baimena kualifikatutako lan-arlo batean lortzeko. Derrigorrezkoa dute estaltzen zailak diren lanbideen katalogoari lotuta lan egitea eta ondorioz, aukeran dituzten jarduera-profesionalak gutxi batzuk dira.

Bestalde, interesa ageri den bezalaxe, elkarrizketatutako emakumeek **hainbat ikastarotan parte hartu dutela** nabarmen geratu da. Jatorriak eta jatorrizko hizkuntzak badute eraginik bertako hizkuntzak ikasteko garaian. Batez ere, gaztelania ikasteko garaian, ez da gauza bera jatorriz latindarra den hizkuntza baten jabe izatea edota eredu horretatik oso urrun egotea (horixe da hain zuzen ere Asiatik, Txina edo Mongoliatik, datozen emakumeen kasua). Harremanek ere, intentsitateak eta maiztasunak, asko eragiten dute ikasketa-prozesuan. **Gaztelania ikastera EP**Ara jo dute emakume gehienek, ez hala, euskara ikastera. Errenteriako testuinguru linguistikoan, ez da lehentasuna, nahiz eta seme-alaben heziketari begira balio positibo gisa ikusten den .

Aztertu dugun beste alderdietako bat izan da **emakume etorkinen eta biztanle autoktonoen arteko harremanak**: oro har, bi komunitateen arteko **harremanak murrizak** dira. Kontua da funtzio integratzailea bete beharko luketen gizarte-eremuetan (lana, formazioa, aisia...) gero eta gehiago topo egiten dutela etorkinek beraiek. Ondorioz, gizarte-eremu horiek gehiago dira etorkinen arteko sozializazio-eremuak etorkin eta autoktonoen artekoak baino. Horrek, eremu horietan bat ez egiteak, ez du errazten etorkin eta autoktonoek elkar ezagutzea eta elkarren arteko lotura positiboak egin ahal izatea. Testuinguru honetan, emakume etorkinek, **estereotipoetan oinarritutako jarrerak** pertzibitzen dituzten biztanler autoktonoen aldetik, ezagutza faltarekin, konfiantza faltarekin eta eraikitako ereduarekin lotutako jarrerak. Komunitateen arteko lotura falta horrek eta irudi estereotipatuaren nagusitasunak, diskriminazio-jarrarek eragiten ditu. Hala ikusten dugu, adibidez, emakume beltzak prostituzioarekin lotzen direnean, edota, buruan zapia daramaten emakume magrebiarrek mesfidantza sumatzen dutenean.

Harreman horien eskutik dator **deserrotze soziokulturalaren bizipena**. Deserrotze hori hainbat modutara bizi dute emakume etorkinek euren ezaugarri psikosozialen arabera: adina, jatorrizko herrialdea, emigrazioaren baldintzak, hizkuntza, emigratzeko arrazoiak, hemen daramaten denbora, etab. Era berean, onarpen handia dute, besteak beste, sistema politiko demokratikoak, osasun-sistemaren funtzionamenduak, askatasunak, emakumeen independentzia eta berdintasunak.

Desberdintasun kulturalaz ari garenean, beti esplizitoak ez diren balio eta pertzepzioekin lotuta dauden alderdi-multzoak ari gara. Izan daitezke maitasun-harremanak, arau moralak, harreman hierarkikoak, genero-kategoriak, rol tradizionalak, hizkuntza, etab. Adibidez, emakume eta gizonen gizarte-rolak dagokienean, horiek ulertzeko dugun moduak zuzenean eragiten du gure portaeretan, balioetan, jarreretan , eta, oro har, gure gizarteko emakume eta gizonen bizimoduan. Emakume etorkinarentzat, **harrera-gizarteko ohiturak bere egitea edota ez egitea, bi estrategiak izan daitezke gatazka-iturri**. Lehendabiziko estrategiak, ohitura berriak hartzeak, jatorrizko komunitateko kide direnekin sor dezake gatazka, bikotekidearekin, edo norbere buruarekin (identitate-krisi modura, zer izan nahi duen benetan). Ezaugarri batzuen bidez identitatea mantentzeak ere tentsioak eragin ditzake. Kasu batzuetan janzkerak, buruan zapia eramateak edota bestelako praktika sozioerlijioek eragiten dute, besteak beste, gutxiestea, diskriminatzea, edo norbera bere etxera biltzea.

Hain oinarritzkoa den **eremu juridikoan, argi eta garbi adierazten da hiritarra zein den** eta zein ez den. Argi eta garbi adierazten da, era berean, etorkin bakoitzari bere egoera legalaren arabera zein eskubide eta betehar dagozkion. Emakume etorkinek, oro har, gainerako biztanle autoktonoek dituzten eskubide berdinak merezi dituzten ustea dute, ez soilik pertsonak izanagatik. Hiritarrari dagozkion betebeharrak guztiak betetzen dituzten neurrian, euren buruak hiritartzat dauzkate. Alabaina, errealitateak, egunean egunekoak gogorarazten die **plano**

teoriko eta praktikoaren arteko amildegia. Etorkinei laguntza ematen dieten GKEen eta bestelako elkarten lana, zailtasun horiei guztiei aurre egiteko etorkinei babes emozionala eskaitzera dator.

Izan ere, aipatutako guztiaren azpian, **elkarrizketatutako pertsonen egoera emozionala** baitago. Egitasmo migratorio bati heltzen dioten emakumeak, oro har, emakume osasuntsuak izaten diren arren, aipatutako zailtasunek egunerokoan eragin handia dute edonorengan, eta badute beraz, emakume etorkinengan ere. Emigratzeak berarekin dakarren oztopo-multzoak emakume etorkinen egoera emozionala aztoratzen du, min psikosoziala eraginez.

Azken batean, Errenteriako edo beste edonongo emakume etorkinak, euren bizimoduak aurrera ateratzeko hainbat estrategia garatzen dituzten hiritarrak dira. **Emakume etorkinen eta biztanle autoktonoen arteko artikulazioa, eta bi aldeek inplikazioa,** oinarri-oinarrizko elementuak izango dira eskubide eta betebeharrak berdinak dauzkaten hiritarren gizartea osatzeko.

Ekintzarako proposamenak

Ikerketa-lan honen bidez jaso dugun emakume etorkinen egoera hobetze aldera, Gipuzkoako SOS Arrazakeria – SOS Racismo erakundetik, errealitate horretan eragiteko **jarduera-ildo batzuk proposatu** nahi ditugu.

Jaso ditugun proposamenei, jarduera-ildo izena eman diegu, izan ere, ideia konketuak proposatu baino gehiago, eragin beharreko esparruak identifikatu ditugu, horietan nola eragin daitekeen hala edo nola adieraziz. Alabaina, ildo horiek landu eta praktikan jartzea udaleko zerbitzuetatik sustatu beharreko lana da, horixe baita ildo horiek ongien zehaztu eta udalerriko errealitatera egokitze modua.

1. Inmigratio Batzorde bat sortzea

Zuzenean edo zeharka biztanle etorkinekin lan egiten duten profesioek eta gizarte-eragileek osaturiko Inmigratio Batzordea bat eratzea proposatzen da. Batzorde horretan honako hauek parte har lezakete:

- Udaletxeko hainbat profesionalek: gizarte-laguntzaileek, udaltzainek....
- Etorkinekin lan egiten duten erakundeak: Cáritas, SOS Arrazakeria...
- Interesgarriak izan daitezkeen bestelako eragileak: EPA, sindikatuak, merkatari/ostalarien elkarteak, auzo-elkarteak,....
- Etorkinak: elkarteetako kide direnak edota etorkinen artean erreferente diren pertsonak.

Era honetako plataforma bat iruditzen zaigu lan-espazio egokiena hemen aipatuko diren moduko proposamenak eta bestela sor daitezkeenak ere diseinatu, garatu eta ebaluatze. Edonola ere, anitza izango den espazio bat sortzea da kontua, instituzionala dena eta ez dena kontuan hartuko dituen, zuzenean etorkinekin lan egiten duten eragileak eta zuzenean inplikaturik ez daudenak, jende autoktonoa eta etorkina, etab. Asmoa da problematika hain konplexua izanik, ahalik eta ikuspegi zabalarekin eta modurik koordinatuen heltzea gaiari.

2. Etorkinei harrera egin eta aholkularitza integrala eskainiko dien zerbitzua ematea

Azterketaren bidez, nabermen geratu da etorkinei bideraturiko informazio guztia zentralizatuko duen figura edo entitate baten beharra, izan ere, gaur egun informazio eta aholkularitza oso sakabanatuta baitago. Asmoa litzateke, pertsona bakoitzaren profilaren arabera aholkularitza egokia eskaintzea eta intereseko izango zaizkion baliabide haietara ongi bideratzea.

Bide horretan lehen urratsa izan daiteke hainbat hizkuntzatan landutako baliabideen gida bat argitaratzea. Aipatutako zerbitzua emateko oso baliabide lagungarria litzateke. Baina, era berean, etorkinak gehien ibiltzen diren tokiak baliatuz ere banatu ahal izango litzateke: lokutorioak, etorkinen elkarteak, sindikatuak, garraio-bideak, establezimendu komertzialak, etab.

Beste urrats bat litzateke, kultuarterko bitartekaritza zerbitzua eskaintzea. Honen bidez eskaini ahal izango lirateke akonpainamendua, itzulpena, interpretazioa, etab.

Era berean, zerbitzu honek beste era bateko ekimenak bideratzea ere eskatzen du: beharrezkoa litzateke, adibidez, udaleko zerbitzuetan jendaurrean lan egiten duten langileei gutxieneko formazioa ematea, etorkinak diren hiritarrei ere zerbitzu eman behar baitiote.

3. Etorkinen integrazioa errazteko udalaren autonomiaz baliatzea

Funtsean etorkinen erregularizazio- eta integrazioa-prozesuak erraztea litzateke kontuan. Horretarako Udalak politika proaktiboak garatu beharko lituzko honako esparru hauetan:

- Etorkinak erroldatzeko garaian.
- Errotze figura tramitzerakoan.
- Familia berriz ere elkartzeko prozedurei heldzerakoan.

4. Etxebizitza lortzeko erraztasunak

Txostenean jaso bezala etorkinek bizi duten arazo larrienetakoa da. Jakin badakigu, edozein herritarrentzako zaila eta garestia dela etxebizitza lortzea. Etorkinaren kasuan zailtasun hori areagotu egiten da: gizarteak, etorkinekiko konfiantzarik ez duen neurrian, diskriminazio-jarrerak dauzka etorkinekiko eta honek zaildu egiten du etorkinek etxebizitza lortzeko aukera. Eredu honetan beraz, bi zentzutan eragin beharko litzateke:

- Etorkinekiko konfiantza falta gainditzeko lagunduko duten sentsibilizazio-kanpainak egin beharko lirateke, bereiziki, etxebizitzaren eremuan.
- Baliabide gutxien dauzkatenean etxebizitza eskuratzeko aukera izan dezaten neurriak martxan jartzea. Aukera bat litzateke etxebizitza lortzeko programa instituzionaletan parte hartu ezin duten pertsonen etxea alokatzen dieten etxe-jabeak saritzeko aukera aztertzea.

5. Etxeko lanen eta zaintzaren eremuan lan-baldintzak hobetzea

Emakume etorkinentzako lan-eremu arruntena den hori da, hain zuzen ere, lan-eremurik prekarioenetarikoa. Beraz, prekariedade horretan eragin eta lanaren kalitatea hobetzeko modua aztertu beharko litzateke:

- Horretarako bidea izan daiteke, gaur egun martxan diren enplegu-programetatik abiatuta, etxeko lanetan eta pertsonen zaintzan aritzeko lana eskaintzen eta eskatzen duten pertsonak harremanetan jartzea, egoera erregularrean egon ala ez egon. Era honetako zerbitzua eskaintzen dute jada, maila informalean bada ere, hainbat erakundek, baina ez dute lan-baldintzetan inola ere eragiten edo araurik jartzen. Asmoa litzateke beraz, eskaintza eta eskaera harremanetan jartzeaz gainera, lan-baldintzak duinak edo/eta legalak izango direla bermatzea. Interesgarria litzateke, zerbitzu hori erabiltzen duten enplegu-emakumeak saritzeko moduak aztertzea.
- Zerbitzu horrek gainera beste eginkizun bat ere eduki dezake: Gobernuak onartu berri duen dependentzia-legeak (Autonomia pertsonala sustatzeko eta dependentzia-egoeran dauden pertsonen Laguntzeko 39/2006 legea, abenduaren 14koa) eskaintzen dizkion abantaila edo aukera ekonomikoen berri ematea enplegu-emakumei eta langilea kontratatuzko diru-laguntzen eskarak betetzen laguntzea. Honek emakume etorkinen lan-baldintzetan eragin lezake modu positiboan.

6. Biztanleria autoktonoa eta etorkina sentsibilizatu eta elkarrengana hurreratu

Errenteria etorkinen herria da eta beraz, integrazioaren bidea egindako herria da. Batzuentzat berriak diren arazoak, lehenago bizi izandakoak dira beste batzuk: pobrezia, diskriminazioa, gehiegikeriak lan-baldintzetan, deberdintasun kulturalak eta hizkuntzarenak, estereotipoak, etab.

- Egungo testuinguruan eta erabateko integrazioa lortze aldera behar garbia da gaur egun biztanleria autoktonoa deitzen dugun hori sentsibilizatzea, etorri-berri diren etorkinen errealitatea ezagut dezaten. Etorkinekiko sentsibilitatea eta enpatia handiagoak asko hobetuko luke euren bizi-kalitatea. Beharrezkoa da beraz, aurreiritziak eta estereotipoak gainditzen lagunduko duen etorkinen irudi gizatiarragoa eta hurbilagoa erakustea.
- Biztanle autoktono eta etorkinen arteko bizikidetzak-espazioak sustatzea. Funtsean, asmoa ez da espazio berriak sortzea, badirenak sustatzea baizik. Zentzu honetan, espazio interesgarriak izan daitezke eskolak, jaiak, udalerrian diren kultur- eta kirol-elkarteak... eta emakumeen kasuan, bereziki interesgarria litzateke, auzoetan diren emakume elkarteetan emakume etorkinen parte-hartzea sustatzea. Horretarako, beharrezkoa litzateke xeheago aztertzea euren parte-hartzea zenbatekoa den, eskaintza interesgarria zaien, ordutegi-kontuak, irakasleen jatorriak, etab.

7. EPA sustatu biztanle etorkinen erreferentzia-puntu gisa

Azkenik, zera azpimarratu nahi genuke: EPAk etorkinen erreferentziazko puntu gisa duen potentziala. Bertara joaten dira gaztelania ikastera, hizkuntza horren jabe ez diren emakume etorkin gehienak eta bertan aritu ohi dira urtebetez. Emakume gehienentzako bizipen, balio, emozio... positiboekin lotutako tokia da, izan ere, ikasteko tokia izateaz gainera, positiboa gainera, sozializatzeko eta harremanak izateko toki gisa paper garrantzitsua jotzen du. Kokaguneak, adibidez, ez dio laguntzen erreferentziasuna hobetzen. Edonola ere, Inmigratio Batzordeko kide izan behar luke eragile horrek.